

**EUSKO JAURLARITZAREN KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA  
NAGUSIAREN TXOSTENA, EUSKAL ERAKUNDEEK EUROPAR  
BATASUNEAN EGITEN DITUZTEN JARDUNEI BURUZKOA**

2016ko ekaina

**AURKIBIDEA**

**I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA**

**II. EUOPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA**

**III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2015. URTEAN ZEHAR EUOPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUNAK**

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadik bertan duen parte hartzea

III.2. Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen Lantaldeetan duen parte hartzea

III.3. Jaurlaritzaren egintzatik eratorrita Europar Batasunean egindako jardunak:

1. Bisita instituzionalak
2. Euskadiren hainbat alderdik Europan duten proiektzioa eta Europako Erkidegoan gaurkotasunezkoak diren gaietan Euskal Autonomia Erkidegoak duen posizionamendua
3. Bestelako bisita eta topaketa batzuk
4. Esku hartzeak konferentzia zein eztabaidetan Informazioa ardatz duten ekimenak zein bilerak antolatzea eta horietan parte hartzea
5. EBrekin zerikusia duten sareetan, erakundeetan eta foroetan egindako lana
6. Europako Erkidegoko Zuzenbideari buruzko espedienteak jakinaraztea eta horien berri ematea
7. Europako Erkidegoko gaien berri ematea eta zabaltzea

**IV. MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA GAIETAN EGINDAKO JARDUNAK**

**V. ETORKIZUNEAN GAUZATU BEHARREKO JARDUNEN PROPOSAMENAK**

A. Zeharkako esparruko proposamenak

B. Arlo sektorialetako proposamenak

## **I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA**

2013ko azaroan, Euskadiko Alderdi Popularrak legez besteko hasierako proposamen bat aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzak Euskadiren eta Europaren berri emateko jakinarazpen bat osatzeari eta osoko bilkura monografiko bat egiteari buruzkoa.

Azkenean, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Euskadiko Sozialistek eta Euskadiko Alderdi Popularrak arestian aipatutako legez besteko proposamenari zuzenketa transakzional bat jartzea hitzartu zuten. Hauxe xedatzen du:

*“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskal erakundeek Europar Batasunean egindako jardunei buruzko jakinarazpen bat osatzeko, eta Ganberara igortzeko, burrengo saioetan zehar osoko bilkuran edo batzordean eztabaida dezaten. Jakinarazpen horretan egoeraren analisisa eta jardun proposamen batzuk bildu beharke dira, eta bereziki aipatu beharke da 2013an Europan txertatzeko prozesuan emandako aurrerapausoekin lotuta gauzatutako guztia.*

*Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2014tik aurrera Ganberara igortzeko urte guztien hasieran euskal erakundeek Europar Batasunean egindako jarduera eta jardunari buruzko urteko jakinarazpena, osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko”.*

2014ko irailean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak txosten bat aurkeztu zion Ganberari, non bilduta ageri ziren 2013. urtean zehar euskal erakundeek Europar Batasunean egindako jarduera garrantzitsuenak. Txosten horren eraginez, gainera, agerraldia egin zen, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak halaxe eskatuta.

2015eko urrian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak euskal erakundeek 2014. urtean egindako jarduera nagusien txosten berria aurkeztu zuen Europar Batasunean, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak Europako Gaietan eta Kanpo Harremanen Batzordean egindako agerraldian aztertu zuten.

Une honetan, txosten berri bat lantzen ari gara 2015eko jarduerekin. Iaz aurkezturiko txostenarekin egin zen bezalaxe, aurtengo honetan mugaz haraindiko lankidetzaren arloan eginiko jarduera azpimarragarrienak bildu ditugu, Jaurlaritza Europan garatzen ari den jardueren funtsezko ardatza baita orain.

Jardunei heldu baino lehen, Europar Batasunaren egungo testuinguruari erreferentzia labur bat egingo diogu, euskal erakundeek EBren aurrean gauzaturiko jardunak eta etorkizunera begirako zenbait proposamen hobeto ulertze aldera.

### **II. EUOPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA**

2015. urtea bi gertakizunek markatu dute: Parisen urtarrilean eta azaroan gertaturiko eraso terroristak.

Era berean, Bigarren Mundu Gerraren ondorenetik gertatzen zen pertsonen masa mugimendu handiena gertatu zen gure kontinentean 2015ean, gatazkan ziren lekuetatik milaka iheslari hasi baitziren Europara iristen. Milioi bat pertsona baino gehiago abiatu ziren bidaia luze eta arriskutsu horretan; gehienak Afganistan, Eritrea, Libia eta Siriatic, gerratik eta terroretik ihesi.

Europar Batasunak indarrak batu zituen bizitzak salbatzeko, gizakien salerosketaren aurka borrokatzeko eta jatorrizko eta igarotze herrialdeekin lankidetzan aritzeko. Pertsonak alde egitera eta emigratzera behartzen dituzten sakoneko kausei heltzera zuzenduriko ekimenak jarri zituen abian; esaterako, pobrezia, gerrak, jazarpena, giza eskubideen urraketak eta hondamendi naturalak. Maiatzean, Europako Batzordeak Europako Migrazio Agenda aurkeztu zuen migrazio fluxuen kudeaketari buruzko planteamendu global batekin, migrazio irregularerako pizgarriak murrizteko, bizitzak salbatzeko, eta EBko kanpoko mugetako segurtasuna bermatzeko asmoz.

Irailean, Batzordeak 1.800 milioi euro gehiago eman zituen iheslarien krisiari aurre egin eta migrazioari heltzeko. Hala, Batasunak gai horri esleituriko guztizko aurrekontua areagotu zuen, 9.300 milioi eurora arte, 2015-2016 aldirako. Estatu kideek adostu zuten nazioarteko babesa behar zuten 160.000 pertsona eramango zituztela arazoa gehien pairatu duten estatu kideetatik beste batzuetara. Era berean, EBtik kanpo kokaturiko esparruetako 22.000 iheslari birkokatzea erabaki zuten. Horretaz gain, bikoiztu egin ziren gizakiak salerosten dituzten erakundeei aurre egitera eta haiek deuseztatzea zuzenduriko ahaleginak. Nolanahi ere, 2015 amaieran oso birkokapen gutxi egin ziren estatu kideen borondate politiko faltagatik, eta horrek arriskuan jartzen du bide arriskutsu eta irregularrekiko alternatiba bat eskaintzeko programaren gaitasuna. Gainera, ez da birkokatze ahaleginik egin hirugarren herrialdeetatik datozen eta nazioarteko babesa behar duten pertsona horien etorrera eta onarpena ondo kudeatuta eta ondo antolatuta daudela, eta seguruak direla bermatzeko.

Urriaren 15ean, Europako Batzordeak erabaki bat hartu zuen Turkiarekin *ad referendum*, migrazioaren kudeaketaren arloko lankidetzak estutzeko baterako ekintza plan baten inguruan, elkarrekin aurre egin ahal izateko iheslarien krisiari. Baterako ekintza plana 2015eko azaroaren 29an egin zen EB-Turkia bileran aktibatu zen. Gainera, EBk konpromisoa hartu zuen Turkiarekiko konpromiso politikoa indartzeko, eta herrialde horri diru laguntza garrantzitsu bat emateko, bisen liberalizaziorako ibilbide orriaren betearazpena azeleratu eta Turkiaren atxikitze prozesua biziberrituta.

2016ko martxoaren 18an, Europar Batasuna eta Turkia akordio batera iritsi ziren, martxoaren 20tik aurrera azken herrialde horretara bideratzeko Egeo Itsasoko greziar uhartetatik modu irregularrean iristen ziren migratzaile guztiak. Lehenengo iheslarien kanporatzea 15 egun geroago gertatu zen, apirilaren 4an, EBko Kontseiluko eta Europako Batzordeko presidenteez eta Turkiako lehen ministroak iragarri zuten. Itunaren xehetasunei jarraikiz, egozte bakoitzagatik, EBk bere lurraldean birkokatzen du akreditazioa duen iheslari siriar bat, 72.000 pertsonako lehenengo txanda bat bete arte. EBk 3.000 milioi euro bideratu ditu (zenbatekoa bikoiztera iritsiko da) Turkiari ordaintzeko, nahitaezko baldintza izaki akordio horretara iristeko.

2015. urtean erakundeen lehentasun nagusietako bat izan da Europar Batasuna hazkundearen bidera itzultzen saiatzea eta lanpostu kopurua eta inbertsio bolumena handitzea, hori guztia zor berria sortu gabe. Junquer Batzordeak egiturazko erreformetarako proposamenak aurkeztu zituen eta finantzak modu arduratsuan kudeatzearen alde egin zuen; bestalde, abian jarri zuen, Europako Inbertsio Bankuarekin batera, finantza tresna berriak biltzen ditun Europarako inbertsio plana. Plana errekorrezko denboran onartu zen Europako Parlamentuan eta Europar Batasuneko Kontseiluan, eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funts (EFSI ) berri bat sortu zen. Funtsak 21.000 euroko hasierako finantzaketa du, EBk emana, eta, eragin biderkatzaileari esker, hamabost aldiz handiagoa den inbertsioa sortu beharko luke (315.000 milioi euro baino gehiago) esparru pribatutik etorritakoarekin.

Europako Egitura eta Inbertsio Funtsak (454.000 milioi euroko aurrekontuarekin 2014-2020 aldirako) EBren lehentasunezko eremuetara bideratu ziren urte osoan zehar. Europako Gizarte Funttsaren esparruan, 86.400 milioi euroko balioa duten programa operatiboek pertsonengan inbertitzen jarraitu zuten, eta EBk 1.000 milioi euro mobilizatu zituen Gazte Enplegurako Ekimena bultzatzeko, gazteei lana lortzen laguntzeko xedez.

Greziako egoera ekonomiko eta finantzarioak negoziazio biziak eragin zituen EBn. Uztailean, Batzordeak enplegu eta hazkunde plan bat jarri zuen martxan Greziarentzat, eta horri esker, 35.000 milioi euro mobilizatu ziren, 2020ra arte. Ondoren, abuztuan negoziazio txandak arrakastaz amaitu ostean, Greziari zuzenduriko hirugarren murrizketa programa bat sinatu zuen Batzordeak, Europako Egonkortasun Mekanismoaren izenean. Akordioak, Greziako bankuen finantzaketari dagokionez Europako Banku Zentralak behartua, eta zorra berregituratzeko herrialde horretako gobernuaren hasierako borondatea plegatu zuena, hurbileko ordainketa etenduratik alde egitea eta Eurogunean geratzeko aukera bermatzea ahalbidetu zion herrialdeari. 86.000 milioi euro mobilizatu ziren finantza laguntzarako 2018ra arte, betiere eskaturiko erreformen arloan Greziak eginiko aurrerabideen mende.

Bestalde, 2015eko urtarrilaren 1ean, Eurogunean sartu zen Lituania, hemeretzigarren kide gisa. Urte horretan zehar, batasun ekonomikoa eta moneta batasuna lortzeari lehentasuna ematen jarraitu zuen Europar Batasunak. Horrekin, herritar guztientzat bizitza hobea eta bidezkoagoa sortu nahi du, eta munduaren etorkizuneko erronketarako prestatu. Euroa, dena den, proiektu politikoa da, eta ikuskapen politikoa eta ardura demokratikoa behar ditu. Horrekin lotuta, Parlamentuak funtsezko rola bete zuen 2015ean. EBk aurrera egin zuen Euroguneak beharrezko duen egitura solidoaren eraikuntzan, munduko bigarren ekonomia handiena dela aintzat hartuta. Azken urteetako aurrerabideak gorabehera, Eurogunean gertatu diren desakordio ekonomiko eta fiskalek handiak izaten jarraitzen dute, eta duela gutxiko krisiak agerian jarri ditu dauden gabeziak: 18 milioi langabetu Eurogunean eta hainbat eta hainbat pertsona bazterkeria jasateko arriskuaren pean.

2015ean aurrerabide handiak gertatu ziren banku batasunaren gauzatzean. Europako Banku Zentralak bere gain hartu zuen banku ikuskatzaile rola, eta Bankuan ezarritako Gainbegiratze Mekanismo Bakarrak lehenengo funtzionamendu urtea bete zuen. Guztira 123 banku gainbegiratu ziren modu zentrolean, eta aholkularitza eskaini zitzaizen beren kapital eta gobernantza egiturei buruz. Horretaz gain, hainbat gainbegiratze politika eta praktika harmonizatu ziren. Era berean, azaroan, Batzordeak gordailuak bermatzeko Europako sistema bat aurkeztu zuen banku gordailuetarako. Sistema nahitaezkoa zen beren bankuak Gainbegiratze Mekanismo Bakarrak estalitako Euroguneako estatu kideentzat, eta beste neurri batzuk hartu zituen banku sektorean dauden arriskuak murrizteko.

Ekainean batasun ekonomikoa eta moneta batasuna osatzeko moduari buruzko bost presidenteen txostena aurkeztu zen. Txostena Europako Parlamentuko, Europako Batzordeko, Kontseilu Europarreko, Eurotaldeko eta Europako Banku Zentraleko presidenteen baterako gogoeta baten ondorio izan zen. Epe laburrean, txostenak proposatzen du dauden tresnak erabil daitezela, eta indarrean diren itunak baliatu, lehiakortasuna eta egiturazko konbergentzia bultzatzeko, nazio mailan eta Eurogunean aurrekontu politika arduratsuak lortzeko, baita batasun finantzarioa ere. Epe luzeagora, konbergentzia prozesuak lotesleagoa beharko luke, adibidez, konbergentziarako erreferentziatzeko hainbat parametro ezarrita eta Euroguneke Altxor bat sortuta. Urrian, Batzordeak lehenengo neurri paketea abiarazi zuen, plana ezartzen hasteko. “Hurrengo bost urteetan gure batasun ekonomikoaren eta moneta batasunaren erreformarekin aurrera jarraitu nahi dut, gure moneta bakarraren egonkortasuna babesteko eta politika ekonomikoen, aurrekontu politiken eta lan merkatuaren konbergentzia sendotzeko, moneta bakarra partekatzen duten estatu kideetan”, adierazi zuen presidentek.

Martxoan, sozietateen gaineko zergaren gardentasuna areagotzeko neurri pakete bat proposatu zuen Batzordeak. Ondoren, ekintza plan bat ezarri zen ekainean. Planaren helburu bakarra sozietateen gaineko zerga justu eta eraginkorra bermatzeko ikuspegi global bat lortzea zen. Urtean zehar, Batzordeak estatuko laguntzei buruzko arauen ezarpena aztertzeko hainbat ikerketa jarri zituen abian, estatu kide batzuek hautatutako zenbati enpresari zerga abantailak eman zizkieten argitze aldera.

2015ean, halaber, Europar Batasuneko merkatu bakarraren indarra aprobetxatzeko eta haren potentziala erabat ustiatzeko planak aurkeztu zituen Batzordeak. Merkatu bakarrak, hainbat produktu eta zerbitzutarako sarbide errazagoa eskaintzeaz gain, prezio txikiagoak, merkataritzarako aukera handiagoak eta segurtasuneko eta ingurumenaren babeserako arau bateratu handinahiagoak ere eskaintzen ditu. Batzordeak merkatu bakarra garatzen jarraitzen du, EBko enpresak eta industriak loratu ahal izan daitezen ekonomia globalean. Urrian Merkatu Bakarraren Estrategia jarri zen abian, kontsumitzaileentzat eta enpresentzat aukera berriak sorrarazteko. Udazkenean, Batzordeak kapital merkatuen batasuna jarri zuen abian, hogeita hamahiru neurritz osaturiko ekintza plan batekin batera. Kapital merkatuetara sartzen eta behar duten finantzaketa lortzen lagunduko diete bi ekimenek enpresa txikiei. Finantzaketarako sarbidea Batasuneko finantza egonkortasunaren funtsezko zatia da. Horretaz gain, ezinbestekoa da EB enpresa onuren zerga sistema bidezko eta eraginkor batez hornitzea, zerga zama modu ekitatiboan banatzen eta hazkunde jasangarria eta inbertsioa sustatzen lagunduko duena. Gainera, esparru horrek dibertsifikatu egingo ditu finantza iturriak eta indartu egingo du lehiakortasun ekonomikoa. Arlo espezifikoago batean, Batzordea merkatu bakar digitala konektatzeko bere estrategia abian jartzen hasi zen.

Europar Batasunak herritarrentzako eta enpresentzako energia seguru eta eskuragarria lortzeko konpromisoarekin eman zion hasiera 2015ari, aldi berean klima aldaketaren arazoien aurka egiteko asmoz. Otsailean energiaren batasuna jarri zuen abian, kontsumitzaileei dirua eta energia aurrezten laguntzeko, ingurumena babesteko eta horniduraren segurtasuna bermatzeko. Uztailean antzeko hainbat eskaintza aurkeztu ziren; haien helburua zen Europar Batasuneko Isurketa Eskubideen Salerosketa Erregimena berrikustea, energia eraginkortasunari buruzko etiketak argiago egitea eta irtenbide hobeak eskaintzea kontsumitzaileei. Batzordeak, bestalde, elektrizitatearen merkatuari buruzko ikuskera berriari buruzko kontsulta publikoa abiarazi zuen. Otsailean, 2020 baino lehen estatu kide guztietan %10eko interkonexio elektrikoko helburua lortzeari buruzko jakinarazpen bat aurkeztu zuen Batzordeak. 2015 amaieran hainbat interkonexio proiektu

aurkeztuak ziren; horien bitartez, Estatu Baltikoak (iparraldean), Iberiar Penintsula (hegoaldean), eta Malta Europar Batasuneko gainerako eremuekin lot zitezkeen. Irailean, energia teknologiko plan estrategiko berria ezarri zuen Batzordeak; haren helburua, teknologia hipokarbonikoen garapena eta erabilera azeleratzea da. Azaroan, energiaren batasunaren egoerari buruzko txostena argitaratu zuen Batzordeak, eta bertan erakutsi zituen Energiaren Batasunari buruzko Esparru Estrategia ezarri zenetik eginiko aurrerapenak. Hala ere, estrategia hori ezartzeko ahalegin berriak egin beharko dira, eta 2016 funtsezko urtea izango da energiaren batasuna lortzeko bidean. Gainera, EBk funtsezko rola bete zuen juridikoki loteslea izan zen klimari buruzko lehenengo akordio unibertsalaren negoziazio saioetan. Guztira 195 herrialdek onartu zuten abenduan, Parisen. Munduari klima aldaketa arriskutsu bat saihesteko aukera emango dion ekintza plan orokor bat ezartzen du akordioak; horretarako munduaren beroketa 2 °C-tik oso behera mugatuta; akordioak, bestalde, seinale argi bat bidaltzen die inbertitzaileei, enpresei eta arduradun politikoei, esanez munduaren energia garbirako trantsizioa geratzeko etorri dela, eta ezinbestekoa dela erregai fosil kutsagarriak bertan behera uztea eta energia iturri garbiengatik ordezkatzeta.

Europar Batasunak 2015ean aurre egin zion beste erronka nagusietako bat Merkataritza eta Inbertsiorako Akordio Transatlantikoari buruz (TTIP - Transatlantic Trade and Investment Partnership) AEBekin eginiko negoziazioak izan ziren. Arlo horretan, nabarmendu beharra dago EB-AEB harreman ekonomikoa munduko alde biko harreman ekonomikoa handiena dela. 2015ean zehar, lau negoziazio txanda egin ziren eta aurrerapausoak egin ziren hainbat arlotan.

Batzordeak argi utzi du edozer akordio berri bati duela egun EBn dauden babes arauak eutsiko zaiela, nahiz eta alderdi hori ez dagoen negoziazioetatik kanpo erabat. Zenbait azterlanek iradoki dute AEBekiko merkataritza askeko akordio berri batek hazkundera ekarriko duela, prezioak murrizten lagunduko duela, eta kontsumitzaileei ondasun eta zerbitzu aukera zabalagoa eskainiko diela. Nolanahi ere, gai delikatuak da, bai baitira guztiz kontrakoak dioten azterlan independenteak, TTIPren aurreko merkataritza askeko tratatuen –esaterako CETA edo NAFTA– ebaluazioan eta haiek ekonomietan izandako inpaktuan oinarrituak. Dena dela, prozesuaren opakotasunaren salaketan aurrean, Batzordeak inoiz baino irekiago eta gardenago egin nahi izan ditu negoziazioak. Urte osoan zehar, elkarrizketak izan zituen interesdunekin, negoziazioaren testuak argitaratu zituen, eta haien garapenari buruzko informazioa eman zuen.

Denbora tarte horretan zehar, EBk bere merkataritza politika aktiboki ezartzen jarraitu du. Munduko merkataritzako egungo sistemari eusten saiatu zen, eta rol aktiboa bete zuen Munduko Merkataritza Antolakundean. Udazkenean, Merkataritza eta Inbertsio Estrategia berria argitaratu zuen Batzordeak. Herrialde kide nagusiekiko merkatuak irekitzeak Batasunaren merkataritza politikaren elementu zentral izaten jarraitu zuen. Europar Batasunak merkataritza askeko akordioekin loturiko negoziazioekin jarraitu zuen; besteak beste, Japoniarekin eta Vietnamekin. Vietnamekiko Akordioa 2015ean izan zen. Era berean, EBk Munduko Merkataritza Antolakundearen zuzendaritzapean eginiko hainbat aldetako negoziazioetan, Zerbitzuen Merkataritzari buruzko akordio batean eta Ingurumen Ondasunei buruzko beste batean ere parte hartu zuen.

Bestalde, Europako altzairuaren industriak (2008ko krisi ekonomikoren ondorioz dagoeneko ahuldua zegoena) prezio txikien eta Txinako eta Errusiako inportazio merkeen eragina jasan zuen 2015ean, eta merkataritza praktika desleialen etengabeko erabilerrari egin behar izan dio aurre, mundu mailako gehiegizko gaitasunak areagoturiko nazioarteko

lehiakortasun handiko testuinguru batean. Batzordeak *dumping*-ari aurre egiteko hainbat neurri ezarri ditu testuinguru horretan, baina eraginpeko estatuek eta eskualdeek azkarrago eragin dezala eskatu diote.

2015ean zehar, Europar Batasunak justizia, oinarrizko eskubide eta herritartasun politikak garatzen jarraitu zuen; politika horiek EBren funtsezko balioetan oinarritzen dira: demokrazia, askatasuna, tolerantzia eta zuzenbidezko estatua. EBko herritarrek konfiantza osoz sinetsi behar dute Europar Batasuneko edozer lekutan daudela ere, beren askatasuna eta segurtasuna ondo babestuta daudela. Apirilean, Europako Segurtasun Agenda aurkeztu zuen Batzordeak. Agenda hori EBk aldea marka dezakeen esparruetan zentratzen da; esaterako, informazio trukea hobetzea eta lankidetzak poliziala eta judiziala indartzea. Urtarrileko eta azaroko Pariseko eraso terroristen ostean, estatu kideek adostu zuten lankidetzan arituko zirela terrorismoaren aurkako borrokan. Erabaki hori are gehiago sendotu zen 2016ko martxoko Bruselako erasoan ostean. Erradikalizazioaren aurkako, terrorismoaren finantzaketa mozteko, eta Poliziaren Europako Bulegoaren (Europol) eta haren lankidetzak judizialeko agentziaren (Eurojust) arteko lankidetzak hobetzeko neurriak hartu zituzten.

2015eko uztailean, Iranek eta nazioarteko sei potentziak (Txina, AEB, Frantzia, Ingalaterra, Errusia eta Alemania) Iranen programa nuklearra mugatzeko akordio historiko batera iritsi ziren, nazioarteko eta alde anitzeko zehapenak kentzearen truke. Frederica Mogherini Europar Batasuneko goi-ordezkaririk iragarri zuen ofizialki akordioa, Irango Kanpo Arazoetako ministro Mohammad Javad Zarif-ekin emandako prentsaurreko batean.

EBk negoziatu zuen akordioa, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kideekin eta Alemaniarekin batera, eta horren bitartez, Errepublika Islamiarrak erabilera zibileko energia atomikoko iturriak garatu ahalko ditu, arma nuklearrak inoiz gehiago eta inolako baldintzatan ez bilatzeko, garatzeko edo erosteko konpromisoaren truke.

Urte osoan zehar, EBk rol bat bete zuen Irak, Libia, Siria eta Ukrainako krisiak konpontzeko nazioarteko saiakeretan. Nazioarteko bere bazkideekin egin zuen lan EI/Daesh-en jardueren aurka. Adierazitako krisiek, eta bereziki, Siriako gerrak, gero eta pertsona gehiago behartu dituzte beren etxeetatik alde egitera. Gatazkengatik desplazatuak laguntza humanitaria eman jarraitu zuen EBk, krisien sakoneko arrazoiei helduta eta gerra eremuetatik ihes egiten saiatzen ari direnei lagunduta. Urtean zehar, Batzordearen Laguntza Humanitarioko eta Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusiak (ECHO) elikagaiak, ostalua, babesak, laguntza sanitarioa eta ur garbia eman zien hondamendi naturalek edo gatazkek eragindako 80 herrialdeetako 120 milioi pertsonari baino gehiagori. Era berean, EBk giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbidearen mundu osoko errespetua sustatzeko konpromisoari eusten jarraitu zuen giza eskubideei buruzko elkarrizketa espezifikoen bidez, horiek alde anitzeko foroetan sustatuz, eta Demokraziarako eta Giza Eskubideetarako Europako Tresnaren bidez.

2015. urtea, bestalde, Garapenaren Europako Urtea izan zen. EBren eta haren estatu kideen babes politikoarekin, Nazio Batuen Batzar Nagusiak garapen jasangarriko helburu berriak ezarri zituen. Helburu horiek garapen jasangarria eta pobrezia errotik ezabatzea lortzeko esparru orokor bat ezarri zuten. EBk garapenerako laguntzaren munduko emaile handiena izaten jarraitu zuen 2015ean.

Letoniak eta Luxenburgok hartu zuten EBko Kontseiluaren txandakako presidentetza 2015ean. Kontseiluaren agenden baldintzatzaila izan ziren urtea markatu zuten gertakari



nagusiak; esaterako, Ukrainako tentsioak, terrorismoa, iheslarien krisia eta Greziako egoera. Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGL) eta Eskualdeetako Lantaldeak (EL) Batzordearen 2015erako lan programan zentratu zituzten beren jarduerak. Urte hasieran, eta agintaldi aldaketarekin, Markku Markkula hautatu zuten ELko presidente, eta Georges Dassis EEGLkoa.

EBko estatu kideetako batzuek 2015ean egin zituzten lehendakaritzarako edo parlamenturako hauteskundeak, emaitza oso desberdinekin: Kroazia, Grezia, Estonia, Finlandia, Polonia, Danimarka, Portugal, Frantzia (eskualdekoak), Erresuma Batua eta Espainia. Erkidegoaren ikuspegitik duen garrantzia aintzat hartuta, azpimarratu beharra dago Britainia Handiko parlamentu berriak “European Union Referendum Act 2015” legea onartu zuela; haren arabera, baimena ematen du Erresuma Batua EBn geratzeko edo bertatik irteteko (Brexit) erreferenduma egiteko, eta horri jarraikiz, 2016ko ekainaren 23an egingo da erreferenduma. Erreferendumaren Legea alderdi kontserbadorearen gobernu helburuetako baten ondorio da, nahiz eta ez duen ofizialki bi aukeretako baten alde egin. Ordutik, Erresuma Batua bi aukeren aldeko eta kontrako hamaika ahotsez beteriko kanpaina batean murgilduta dago.

### **III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2015. URTEAN ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUNAK**

Aurreko urteetan bezalaxe, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian egokitzen joan da 2015. urtean euskal erakundeek egindako jardunak berrikustea, honako irizpide hauen arabera:

III.1. Eskualdeetako Lantaldean parte hartzearekin lotuta egindako jardunak. Horixe da, hain zuzen, Europar Batasuneko organo bakarra, non Europar Batasunaren Tratatuak euren ordezkaritza erabat deszentralizatuak egiteko aukera ematen duten.

III.2. Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Europako Batzordearen Lantaldeen arloan parte hartzeko gauzatutako jardunak. Jardun horiek, hain justu, 2004ko abenduaren 9ko Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentziaren bi akordiotan daude jasotak.

III.3. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eta interesetatik eratorritako Jaurlaritzaren egintzen arloekin lotuta Europar Batasunean egindako jardunak.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Europar Batasunean egindako lana, hain zuzen, Europako Gaietarako Zuzendaritzak eta Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzak modu koordinatuan jardunez gauzatzen da. Bere ezaugarri nagusiak dira, hain justu, Europako gaien buruzko ezagutza handia, bere jardunen balio erantsi handia eta honako hauei zerbitzua emateko espiritua: Jaurlaritzaren sailei, foru aldundiei, euskal udalei eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde eta organo batzuei, bai eta gizarte eta ekonomiaren arloko euskal eragile nagusiei ere.

Hori guztia euskal presentzia Europar Batasunaren erakunde eta organoetan eta Europako intereseko sare eta foroetan finkatzeko asmoz, eta, azken batean, Euskadik EBn duen posizionamendua aberasteko.

### **III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadik bertan duen parte hartzea**

Eskualdeetako Lantaldea (aurrerantzean, EL) EBren eskualde eta udalerrri osoak ordezkatzen dituen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuak 1992an sortu zuen, eta 1994an jarri zen martxan, eta orduz geroztik haren aholkularitza ahalmena eta eragina areagotzen joan da, bai Europar Batasuneko legeriaren barruan, bai Europako agenda politikoan.

2015eko otsailean egin zen lehengo osoko bilkura, eta horrekin batera eman zitzaion hasiera ELren agintaldi edo legegintzaldi berri bati, zeinak, Lisboako Tratatuari jarraikiz, bost urteko iraupena izango duen eta, hortaz, 2020an amaituko da. Saio horretan bere kargu guztiak berritu zituen ELk: presidente berria hautatu zuen, Markku Markkula finlandiarra; lehen presidenteorde bat, Karl-Heinz Lambertz belgikarra; idazkari nagusi bat, Jiří Buriánek alemaniar-txekiarra, baita erantzukizuneko gainerako postuak ere. Era berean, indarreko legegintzaldirako programa politikoa onartu zuen eta lantalde berriak eratu zituen, besteak beste.

Agintaldi honetan, ELk 350 kide titular ditu (eta 350 ordezko): EBko 28 estatu kideetako eskualdeetako presidenteak, alkateak, zinegotziak, sailburuak, diputatuak, etab. Horien guztien egitekoa da, hain justu, Bruselara joatea eurak ordezkatzen dituzten herritarren interesak defendatzera, erabateko independentziaz eta, betiere, Europar Batasunaren interes orokorra lortu nahian. Euskadiko kide titularra lehendakaria da, eta, ordezko kidea, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia.

Europar araudia osatzeko prozesuan, Europako Erkidegoko erakundeak derrigor-tuta daude ELk jardunbide arloei buruz duen iritzia jasotzera, arlo horiek eragina baitute eskualde eta tokiko eskumenetan. Hauek dira derrigorrez kontsultatu beharreko arloak: garraioa; enplegua; gizarte politika; Europako Gizarte Funtsa; hezkuntza; lanbide heziketa; gazteria eta kirola; kultura; osasun publikoa; Europaz harandiko sareak; ekonomia, gizarte eta lurralde kohesioa; ingurumena eta energia. Era horretan, EBren jardunbide arlo gehienak estalita geratuko dira. Derrigorrezko kontsultez gainera, Kontseilu Europarrak, Europako Batzordeak eta Parlamentuak aukera izango dute ELri bestelako hautazko kontsultak egiteko. Gainera, ELk bere iritzia ere eman ahal izango du.

Iritzi horiek batez ere europar araudiari buruzko irizpen politikoen bitartez ematen dira. Eta, gerora, Europako Batzordera, Kontseilu Europarrera eta Europako Parlamentura igortzen dira. 2015ean, ELk, guztira, 46 irizpen eman ditu.

Irizpenez gainera, ELk txostenak eta ebazpenak egiten ditu, EBko legediak udalerrietan eta eskualdeetan duen eragina jasotzeko, ELri gaiak EBren agendan sartzeko aukera emateko, eta gaurkotasuneko gai politikoei buruzko adierazpenak egiteko. ELk parlamentu bat bezala funtzionatzen du, haren eginkizun bakarra aholku emailea bada ere. Urtean bospasei osoko bilkura egiten dira Bruselan. Horietan, kideez gainera, pertsona eta hizlari gonbidatuek ere parte hartzen dute –batez ere EBko presidentetza duen herrialdeko goi ordezkariek eta komisarioek–, gaurkotasuneko gaiei buruz eztabaidatzeko.

Honako hauek osatzen dute: presidenteak, lehen presidenteordeak, 28 presidenteorde gehiagok (estatu kide bakoitzeko bana), bost talde politikok, 63 kidek osatutako mahai batek, sei batzorde iraunkorrek (eta berariazko beste hainbestek, premien arabera), ordezkaritza nazionalak, lantaldeek eta eskualde arteko lobby taldeek.

### **Euskadik 2015ean Eskualdeetako Lantaldean izandako parte hartzea**

ELk eskualde eta tokiko ordezkari organo gisa EBko erabakiak hartzeko prozesuan duen egitekoa dela tarteko, europar araudiari zuzenketak aurkeztea da, hain zuzen, euskaldunok iritzia emateko eta organo horretan parte hartzeko bide nagusia. ELk Europako erabakitze prozesuetan duen jarduera aholku emailea esaten zaio horri.

Gainera, iaz Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen bestelako jarduera paralelo batzuk ere izan ziren. Txosten honetan garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

**I. eranskinean**, Eusko Jaurlaritzak 2015ean izandako parte hartzearen laburpen taula kontsultatu daiteke. Bertan dago adierazita zer ekitaldi den, ordezkariaren izena, jarduera mota eta parte hartzearen data.

**1. Europako Erkidegoko araudiari zuzenketak aurkeztearekin lotuta**, egin diren sei osoko bilkuretan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak, **69** zuzenketa egin ditu, eta organo horren aurrean **56** aurkeztu; horietatik **52** onartu dira.

**2. eranskinean**, zuzenketa horiei buruzko informazio zehatza kontsultatu daiteke.

Bigarrenik, eta kontuan izanda zuzenketa bat aurkezteko beharrezkoa dela ELko beste bost kideren sinadura lortzea, 2015ean hainbat eskualde eta udalerri 268 zuzenketa bidali zizkioten Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzaren babesa lortzeko eta zuzenketak elkarrekin aurkeztu ahal izateko. Guztiak behar bezala aztertu ondoren, Jaurlaritzak 125 babestu zituen; alegia, jasotako zuzenketa guztien % 47 inguru.

**3. eranskinean**, berriz, beste eskualde batzuek osatu eta Euskadirekin batera aurkeztutako zuzenketak kontsultatu daitezke.

Azkenik, nabarmendu behar da, Eskualdeetako Lantaldearen jarduera osoa aurrera eramateko, kideak maiz biltzen direla osoko bilkurak egin aurretik, bai Europako talde politikoetan, bai estatuetako ordezkarietan.

**2.** Zuzenketez gain, euskal administrazioen hainbat ordezkari parte hartu zuten Lantaldearen lanetan, txostenen bidez beren lurraldean gauzaturiko politika konkretuei buruzko **jardunbide egokien adibideak** emanaz, esperientzia truke baten eta elkarrekiko ikaskuntzaren esparruan, eta eskualdeek eta udalerriek Europako helburuak lortzeko eginiko ekarpen gisa.

**2.1** Aurrekoarekin lotuta, Eusko Jaurlaritzaren Europako Gaietarako zuzendariak hizlari gisa parte hartu zuen martxoan Bruselan eginiko **Eskualdeen Lantaldeko Lurralde Lankidetzako Europako Taldeei (LLET)** buruzko **Plataformaren** urteroko bileran: “LLETak eta enplegua”. Bileran mugaz gaindiko eskualdeetan enplegua sustatzeko ekimenak eztabaidatu zituzten, eta jardunbide egokien kasuak aurkeztu.

Plataforma ELren tresna bat da eta European diren LLET guztiak (55) eta eraikitzeko bidean direnak (13) biltzen ditu. Horien helburua mugaz gaindiko lankidetzaren erraztea da, LLETen sorrera eta haien jarduerak babestuta, haien aurrerabidea ebaluatuta, jardunbide egokien trukea sustatuta, eta estatutuei eta hitzarmenei buruzko informazio bilketaren bidez.

Bileran aurkezturiko jardunbide egokien artetik hautatutako lau kasuetako bat Akitania-Euskadi Euroeskualdea izan zen, eta horregatik, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariak, Euroeskualdearen ordezkari gisa, Akitania/Euskadi 2014-2020 LLETaren plan estrategikoa aurkeztu zuen. Planak 4 ardatz ditu oinarri: herritarrak, I+G+B eta jakintza, jasangarritasuna, eta gobernantza. Horretaz gain, plana egituratzen zuten proiektu zehatzak ere aurkeztu zituen. Horien artean, nabarmentzekoa da Akitania-Euskadiko enpleguaren egoerari buruzko diagnostikoa egiteko Europako proiektua, 12,5 milioi euroko zuzkidura duena.

**2.2.** Bestalde, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziaren zuzendariak ekainean Bruselan egin ziren **4th Assises of Decentralised Cooperation** (Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko IV. “Assises” jardunaldiak) jardunaldietan parte hartu zuen. Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Batzordeak batera antolatutako, jardunaldi horiek EBko eta hazkunde bidean diren herrialdeetako eskualdeko eta tokiko ordezkariak biltzen dituzte, lankidetzaren arloan ikuspegiak elkar trukatzeko.

2015, Garapenaren Europako Urtea, urte garrantzitsua izan zen Milurtekoaren Helburuen amaiera markatu baitzuen, eta etapa garrantzitsua izan baitzen hurrengo 15 urteetarako garapen agenda berri bat adosteko.

Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendariak hizlari nagusi gisa parte hartu zuen antolaturiko bost eztabaida mahaietako lehenengoan, “Post-2015: Universality and the territorial Approach to Development” (2015 ondorengo agenda: Unibertsaltasuna eta garapenerako lurralde hurbilketa) izenekoan, eta ondoren, osoko bilkuran zehar, mahai-inguru horretako parte hartzaileekin izandako eztabaidaren ondorioak aurkeztu zituen.

**2.3** Euskadik berriz ere parte hartu zuen, 11. urtez jarraian, EBren erakundeetako **Open Days** edo ate irekiko jardunaldietan. Hitzordua Europako eskualdeen eta hirien jardunbide egokiak eztabaidatzeko eta trukatzeko izaten da, urtero-urtero. Aurten **“Europe’s regions and cities: partners for investment and growth”** (Europako eskualdeak eta hiriak: inbertsiorako eta hazkunderako kideak) goiburua pean egin ziren jardunaldiok eta 6.000 pertsona baino gehiago bildu zituzten iraun zuten lau egunetan. Guztira 200 inguru lantegi eta mintegi eskaini ziren Bruselako hainbat tokitan.

**2.3.1.** Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritza honako hauek osaturiko Europako itsas eskualdeen aliantza baten buru izan zen: Asturias, Liguria, Britainia-Loirako herria, Finlandia hego-mendebaldea eta Gales. Horretaz gain, konferentzia bat antolatu zuen Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, honako izenburu honen pean: **“Itsas eskualdeak eta hazkunde adimenduna negozioetarako, enplegurako, berrikuntzarako eta gaitasunetarako”**. Konferentziaren helburua itsas eskualdeen interesak babestu eta lehiakortasunaren, berrikuntzaren, prestakuntzaren eta itsas sektoreko espezializazioaren arloko aukerak eta jardunbide egokiak aurkeztea izan zen.

Adierazitako konferentzian, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariak hitzaldi bat eskaini zuen: “Estrategia Atlantikoa eta itsas estrategia hazkunde jasangarri adimendunaren, berrikuntzaren, lehiakortasunaren eta eskualde arteko lankidetzaren gidari gisa”. Txostenak hiru atal nagusi zituen: 1.- Euskadiren itsas estrategia, Estrategia Atlantikoa, eta hura estrategia makroerregional gisa aintzatestearen garrantzia. 2.- Europa mailako itsas estrategia industrial integratua ezartzearen garrantzia. 3.- Eta, azkenik, Euskadiren lehentasunak eta proiektuak itsas sektoreari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak inauguratu zuen jardunaldia Euskadiren Europar Batasuneko ordezkariaren hitz batzuekin, bera baitzen ekitaldiaren antolatzailea, CPMRrekin (Europako Periferiako Itsas Eskualdeetako Konferentzia) batera. Amaiera ekitaldia Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariaren eta CPMRko ordezkari baten esku egon zen.

2.3.2 Bestalde, Gasteizko Udala hautatu zuten ingurumen politiketako eta politika jasangarrietako jardunbide egokien adibide gisa, eta bere esperientzia eta jardunbideak azaltzera gonbidatu zuten urrian egin zen honako konferentzia honetara: “Hiri garapen integratua sustatzea EBn Hiri Agenda bat onartzeari begira”.

Adierazitako konferentziaren helburua hiri politikak indartzeko moduei buruzko eztabaida piztea zen, balizko Europako Hiri Agenda bat sortzeari begira, hori baita 2016ko lehen sei hilekorako lehentasunetako bat nederlandar presidentetzarentzat. Konferentzian jardunbide egokien hiru adibide aurkeztu ziren: hiri adimendunaren bat, hiri berdearen bat, eta hiri integratzailearena hirugarrena. Gasteiz izan zen hiri berdearen adibidea.

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaria izan zen Gasteizko Udalaren ordezkaria adierazitako konferentzian, eta eginiko aurkezpenean azaldu zuen zergatik lortu zuen Gasteizek Europako Hiriburu Berde izatea 2012an. Horretaz gain, garapenerako hiri jasangarritasunean oinarritzen den ikuspegia azaldu zuen; bereziki garraioari dagokionez, 2010etik CO<sub>2</sub> isurketak % 10 murriztea lortu baitute.

2.4. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak hizlari gisa parte hartu zuen ELk 2015eko azaroan eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearekin (EEGL) batera antolaturiko “**Gizarte Zibila, Hiriak eta Eskualdeak COP21-erako eta etorkizunerako prestatzen**” konferentzian. Ekitaldiaren helburua eskualdeko eta tokiko eragileak COP21<sup>1</sup>-erako nola mobilizatu diren eta zer ekintza zehatz egin dituzten erakustea zen.

Bertan, Idazkaritza Nagusiak klima aldaketari aurre egiteko Euskadiren ibilbide orria azaldu zuen, honako honetan jasoa: “**Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Estrategia: Euskadiren konpromisoa**”. Konpromisoak berotegi efektuko gasen % 40ko murrizketa helburua aurreikusten du 2030erako, 2005. urtekoekin alderatuta, eta % 80koa 2050erako.

Bestalde, konferentziaren baitan panel bidezko erakusketa bat antolatu zuten eskualdeak eta hiriak klima aldaketaren aurka borrokatzeko egiten ari diren ahaleginak erakusteko. Paneletako bat **Euskadirentzat** izan zen, eta beran, **kutsadurari aurre egiteko Euskadiren lehentasunezko helburuetako bat azaldu zuen lehendakariak**.

Lehendakariak emandako informazio hori bera Eskualdeetako Lantaldeak argitaraturiko **liburuxka** batean bildu zen, izenburu honen pean: “**EBko hiriak klima aldaketaren aurkako aldaketaren lider**”. Liburuxkak gaiari buruzko goi-mailako eskualdeko eta tokiko agintarien testigantzak jasotzen ditu, eta nazioarteko, estatuko, eskualdeko eta tokiko ordezkarien artean banatu zen, Parisen egin zen COP 21-i buruzko ekitaldietan.

---

<sup>1</sup> Parisen 2015eko azaroan eta abenduan zehar eginiko Klima aldaketari buruzko Nazioarteko XXI. konferentzia, edo COP21, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko mundu mailako akordio bat lortzeko antolaturiko konferentzia bat izan zen.

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzian** parte hartzera animatu zituen bertaratuak. Azken ekitaldi hori Bilbon egin zen, 2016ko apirilaren 27tik 29ra.

**Eskualdeetako Lantaldeko presidente Markku Markkulak** parte hartu zuen VIII. Konferentzia horretan, zeinetan Europako tokiko gobernuetako 800 ordezkari baino gehiago bildu ziren, Europako tokiko jasangarritasunari buruzko eztabaida ekitaldi handiena bihurtuta.

Era berean, Eskualdeetako Lantaldeak **2016an Euskadira “Azterketa bisitaldi”** bat egitea onartu zuen 2015ean. Bisitaldi horretan EBko eskualdeko eta tokiko hamabost bat ordezkariak parte hartu dute. Lantaldeak finantzaturiko ekimena izan zen azterketa-bisitaldia, eta helburua alde aurretik aipaturiko Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzian parte hartzea izan zen, baita Urdaibaiko Erreserba ezagutzea ere. Han, Euskadiko agintariak ingurumen jasangarritasunaren arloko beren lurraldeko jardunbide egokiak azaldu zizkieten Lantaldeko kideei.

**3. Azkenik, ELko hainbat taldearteko lanen jarraipena** egingo du Euskadik. Honako hauek dira taldeak:

- REGLEG-CALRE (legegintza eskumenak dituzten eskualdeak eta legegintza eskumenak dituzten parlamentuak);
- Automobilgintzako industriako taldea;
- Osasuneko taldea.

### **III.2. Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen Lantaldeetan duen parte hartzea**

Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentziaren Akordioen babespean parte hartzen du Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen Lantaldeetan.

Autonomia erkidegoek Europako gaietan parte hartzearen gaia izaera horizontaleko bi forotan jorratu da, Euskadiren parte hartzearekin, Sektoreko Konferentzia izenekoetan modu espezifikoan jorratzen dena gorabehera.

Honako hauek dira foroak:

- Europako Erkidegoetako Gaietarako Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Aldebiko Lankidetzaren Batzordea
- Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentzia (EBGK)

Aldebiko Batzordeak ez du bilerarik egin 2015ean, eta gauza bera dago jasota 2014an eta 2015ean aurkezturiko txostenetan.

Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentzia (EBGK), Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako ordezkariak biltzen dituen, erakunde horiek Europako Erkidegoaren gaietan parte hartzeko erabil ditzaketen sistemak modu horizontalean egituratzen dituen foroak da.

2015ean, eta aurreko ekitaldietako joerari eutsiz, EBGK-k ez du inolako jardunik izan ia. Hala, Konferentziaren Osoko Bilkura ez da bildu 2011ko otsailaren 7az geroztik, nahiz eta haren barne araudiak ezartzen duen gutxienez urtean bi aldiz bildu behar duela. Eta Konferentziaren lan organoa ere, Koordinatzaileen Batzorde izenekoa, behin bakarrik bildu zen 2015. urtean, urriaren 20an, eta Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia bertan egon zen.

Bi foro horien jarduera urriak eta bileran landutako gaien garrantzi eskasak nolabait erakusten du Estatuko Gobernuak ez duela interesik autonomia erkidegoen parte hartzea indartzeko Europar Batasunaren gaietan, nahiz eta Gobernuaren jardunaren agendan sartuta egon beharko luketen, euren eskumenak eta interesak kontuan hartuta.

Konferentziaren baitan, badira bi gai jarraian garatuko direnak, parte hartze autonomikoarekin zerikusia dutelako eta, are zehatzago, hainbat inplikazio dituztelako Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Europar Batasunean gauzatzen dituzten jardueretan.



## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

---

Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentzia (EBGK), Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako ordezkariak biltzen dituena, erakunde horiek Europako Erkidegoaren gaietan parte hartzeko erabil ditzaketen sistemak modu horizontalean egituratzen dituen foroa da.

2015ean, eta aurreko ekitaldietako joerari eutsiz, EBGK-k ez du inolako jardunik izan ia. Hala, Konferentziaren Osoko Bilkura ez da bildu 2011ko otsailaren 7az geroztik, nahiz eta haren barne araudiak ezartzen duen gutxienez urtean bi aldiz bildu behar duela. Eta Konferentziaren lan organoa ere, Koordinatzaileen Batzorde izenekoa, behin bakarrik bildu zen 2015. urtean, urriaren 20an, eta Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia bertan egon zen.

Bi foro horien jarduera urriak eta bileran landutako gaien garrantzi eskasak nolabait erakusten du Estatuko Gobernuak ez duela interesik autonomia erkidegoen parte hartzea indartzeko Europar Batasunaren gaietan, nahiz eta Gobernuaren jardunaren agendan sartuta egon beharko luketen, euren eskumenak eta interesak kontuan hartuta.

Konferentziaren baitan, badira bi gai jarraian garatuko direnak, parte hartze autonomikoarekin zerikusia dutelako eta, are zehatzago, hainbat inplikazio dituztelako Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Europar Batasunean gauzatzen dituzten jardueretan.

### **1. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek Europar Batasuneko Kontseiluan duten parte hartzea**

2015. urtean, Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Batzordearen (ECOFIN) lantaldeetan parte hartzen jarraitu dugu. Foro horietako parte hartzea Zerga Koordinaziorako Organoak zuzentzen du; bertan bilduta daude bai Eusko Jaurlaritza, bai hiru foru aldundiak

Joan den urteko txostenean adierazi zen moduan, Euskadik lantaldeetan bakarrik parte hartzen du; Kontseiluko erakunde horren Osoko Bilkuran ez dago euskal partaidetzatik.

Euskal Autonomia Erkidegoak honako lantalde hauetan parte har dezake: 1. Zerga Gaietako D4 Taldea, bi erakundetan zatituta dagoena: zuzeneko zerga sistema eta zeharkako zerga sistema; 2. Jokabide Kodearen D5 Taldea, enpresen zerga sistemari eta dagokien azpitaldeari buruzkoa.

ECOFIN Kontseiluaren lantaldeen 31 bileratan parte hartu dute euskal erakundeek 2015ean, eta bilera horien datak **4. eranskinean** kontsultatu daitezke.

Autonomia erkidegoei parte hartzen uzten dieten Europar Batasuneko Kontseiluaren gainerako erakundeei dagokienez, parte hartze horri jarraipena egiteko ohiko eginkizunak bete dira. Ildo horretatik, komeni da nabarmentzea 2016ko bigarren seihilekoan, Euskadi izango dela hezkuntza eta kultura arloko autonomiako ordezkaria, Batasunaren Kontseiluko Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kiroleko (HGKK) formazioetan.

### **2. Gobernuak Europako Batzordearen lantaldeetan duen parte hartzea**

Autonomia erkidegoek Europako Batzordearen lantaldeetan izan dezaketen parte hartzeari buruzko akordioen arabera, une honetan 2014-2017 partaidetza aldiari gaudu. Zehazkiago, 2015ean zehar, Euskadi honako batzorde hauetan izan da autonomiako ordezkari:

- Horizon 2020 abiarazteko programa espezifikokoaren batzordea – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) – “Europa mundu aldakor batean–Gizarte inklusiboak, berritzaileak eta gogoetatsuak” formazioa: bilera bat.
- FADN batzordea (Farm Accountancy Data Network – Nekazaritzako Kontabilitate Informazioaren Sarea): hiru bilera: martxoak 11, ekainak 12 eta azaroak 20.
- Klima Aldaketaren Batzordea, lau bilera: martxoak 26, irailak 24 eta azaroak 12.

### **III.3. Jaurlaritzaren egintzatik eratorrita Europar Batasunean egindako jardunak**

Jarraian, 2015ean zehar Europar Batasuneko erakundeetan izandako euskal jardunaren gertaera nagusiak zehaztuko dira, jardun mota errepikatuenen arabera eta kontuan hartuta Euskadiren eskumenei dagozkien gaiak, baita Europako Erkidegoaren esku hartze arloei dagozkienak ere.

#### **1. Bisita instituzionalak**

Atal honetan zehaztuta daude, hurrenkera kronologikoan, Europako Erkidegoaren hiriburura egindako bisita instituzional garrantzitsuenak.

Bisitaldiei buruzko xehetasunekin hasi baino lehen, ekainaren 1ean Iñigo Urkullu lehendakariak egoitza Bruselan duen Flandriako Gobernuari eginiko bisita instituzionala nabarmenduko dugu. Bisitaren xedea Flandriako eta Euskadiko gobernuen artean Asmoen Adierazpena sinatzea izan zen. Ez da Batasunaren erakundeetan eginiko jardun bat, baizik eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Bruselara eginiko garrantzi handiko bisitaldi bat.

- Urtarrilaren 20an, Etxepare Institutuaren zuzendariak Europako EUNIC sarearen lehenengo zuzendaritza batzordean parte hartu zuen. Sareak Europar Batasuneko kultur erakunde nazionalak biltzen ditu. Bileran horretan baieztatu zen Etxepare Institutuaren onarpena, EUNIC sarean parte hartzen zuen lehenengo eskualdea izanik gurea. Urtean zehar hainbat bilera, zuzendaritza batzorde eta proiektuen segimendu egin dituzte.
- Urtarrilaren 30ean, Lanbide Heziketako sailburuordeak eta Heziketa eta Ikaskuntza zuzendariak hainbat bisitaldi egin zituzten Europako Batzordeko Zuzendaritza Nagusiekin. Enpleguko eta Gizarte Gaietako Zuzendaritza Nagusian Europa 2020ko eta Enpleguko zuzendari Detlef Eckert-ekin bildu ziren; era berean, lanbide heziketaz arduratzen den unitate buruarekin ere bildu ziren, baita Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiko ordezkariekin ere. Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusian Industria Berrikuntza unitateko buru Bonifacio García Porrarekin bildu ziren.
- Otsailaren 5ean Hizkuntza Politikako sailburuordeak hitz egin zuen Europako Parlamentuan, Hizkuntza Aniztasunaren ibilbide orriari buruzko konferentzian. Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD) izan zen konferentziaren antolatzailea, eta haren koordinazioa Eusko Jaurlaritzaren esku dago.
- Otsailaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendariak parte hartu zuen CINEREGIO sarearen (eskualdeko ikus-entzunezko funtsak biltzen dituen Europako sarea) laneko saioan, Berlinale zinema jaialdiaren esparruan.
- Otsailaren 12an eta 13an, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Europako Gaietarako zuzendariak laneko bilerak egin zituzten Europako mugaz gaindiko lankidetzaren erloko erakundeetako ordezkariekin.
- Otsailaren 24an Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak, Donostia 2016ko zuzendariak, eta Donostiako alkateak laneko bilera bat egin zuten Europako Batzordearekin, Donostia2016 ekimena Melina Mercouri sarirako hautagai

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

---

izan zedin babesteko. Irailaren 25ean jakinarazi zen Europako Batzordeak adierazitako saria eman ziola Donostia2016ri, 1.500.000 euroko zuzkidurarekin.

- Otsailaren 24an, Enpresa, Industria eta Ekintzailetzako komisario Elzbieta Bienkowska-k laneko gosari batera gonbidatu zuen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantza Tapia, industria politikaz eztabaidatzeko.
- Martxoaren 9an eta 10ean, Eusko Jaurlaritzako Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria zahartze aktibo eta osasuntsuari buruzko Berrikuntzako Europako Gailurrean izan zen. Bruselan zela aprobetxatu zuen Osasuneko Zuzendaritza Nagusian eta Andriukaitis komisarioaren kabinetean bilerak egiteko.
- Martxoaren 12an, Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendariak hitzarmen bat sinatu zuen ART-UNDPrekin Europako eskualdeen eta hirien parte hartzea duen garapenerako lankidetzako ekimen berritzaileei buruzko Europako I-STEPS proiektuaren esparruan.
- Martxoaren 25ean, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkargoaren biltzar nagusian parte hartu zuen, baita Euskadiko produktuak zituen Kalitatezko Nekazaritzako produktuak erakusketan ere.
- Apirilaren 23an eta 24an, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak hainbat bilera egin zituzten Europako Batzordeko zenbait ordezkariarekin, hiri garapenarekin, energia eraginkortasunarekin eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtzarekin loturiko politikak ezagutzeko.
- Maiatzaren 5ean eta 6an, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea eta Kultura Sustatzeko zuzendaria honako hauekin bildu ziren: Europako Parlamentuko kultura batzordeko presidentea, Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiko ikus-entzunezkoen arloko unitate burua, Europako Batzordeko Connect Zuzendaritza Nagusiko (ikus-entzunezko politika) unitate burua, eta Creative Guarantee finantza tresnaren Europako Batzordeko arduradun teknikoa.
- Ekainaren 3an Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendaria Ekuadorreko Carchi eskualdeko prefetarekin bildu zen Bruselan, I-Steps Europako proiektuan bildutako ekimenez hitz egiteko.
- Ekainaren 3an, Basquetour, Turismoaren Euskal Agentziako zuzendariak Euskadi helmuga turistikoa Belgikako bidaia antolatzaileei aurkezteko ekitaldian parte hartu zuen.
- Ekainaren 5ean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburu Ana Oregik klima aldaketaren aurkako jardunak aztertze lan saio batean parte hartu zuen Bruselan, Quebec, Gales eta Rhône Alpes eskualdeetako ordezkariarekin batera. "Eskualdeak eta COP21: berrikuntzaren eta klima aldaketaren arloko funtseko eragile. Klima aldaketari buruzko estrategiak: eskualdeen rola" izeneko ekitaldia 2015ko Europako Aste Berdeko jardueren baitan egin zen. Ekitaldi horretan, sailburuak 2050erako Euskadiko klima aldaketaren estrategia aurkeztu zuen Europar Batasunak eta Nazio Batuen Erakundeak arlo horretan ezarritako jarraibideekin bat egiten duen politikaren adibide gisa.

- Uztailaren 2an, Osasun Publikoaren sailburuordea eta Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria Europako Osasun komisarioaren kabinete buruarekin bildu ziren, Eusko Jaurlaritzak garaturiko osasun publikoaren arloko prebentzio, kronizitate eta berrikuntza politikak ezagutarazteko.
- Uztailaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako sailburuordea Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD) sarearen zuzendaritza batzordearen bilerako buru izan zen, eta hizkuntza sektorearen balio ekonomikoari buruzko txosten bat aurkeztu zuen bertan..
- Urriaren 22an eta 23an, Euskadiren eta Lonbardiaren arteko nekazaritzako elikagaien arloko lankidetzaren hitzarmenaren sinadura ekitaldian parte hartu zuten Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantza Tapiak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeak, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak; horretaz gain, Milango EXPOan Europako hainbat eskualdetako tokiko elikadura sistemei buruzko posizio dokumentuaren aurkezpenean ere parte hartu zuten.
- Urriaren 28an eta azaroaren 20an, Zerga Administrazioako zuzendaria Kontseiluan eginiko Zerga Gaiak – zuzeneko fiskalitatea D4 Taldearen bileretan izan zen, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komun kontsolidatu bati buruz hitz egiteko.
- Azaroaren 12an, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren programa aurkeztu zen Bruselako Arte Ederren Kultur Zentro Nazionalean (BOZAR). Bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea, Donostiako alkatea eta Aldundiko eta Donostia2016 taldeko ordezkariak.
- Abenduaren 2an eta 3an, Gipuzkoako Ingurumeneko foru diputatua eta bere taldeko bi pertsona Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko, Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiko, eta baliabideen kudeaketa eraginkorrerako Hirien eta Eskualdeen Sareko ordezkariekin bildu ziren. Bisitaldiaren helburua Europako ekonomia zirkularrari buruz argitaratu berri den paketea eta Gipuzkoako hondakinen kudeaketa aztertzea izan zen.

### **2. Euskadiren hainbat alderdik Europan duten proiektzioa eta Europako Erkidegoan gaurkotasunezkoak diren gaietan Euskal Autonomia Erkidegoak duen posizionamendua**

Europako Batzordeko Enplegu, Hazkunde, Inbertsio eta Lehiakortasunerako lehendakariorde Jyrki Katainen-ek 2015eko otsailaren 26an Euskadira eginiko bisitaldia, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren babesarekin, mugarri garrantzitsua izan zen Euskadiren Europako proiektzioari begira.

Jean Claude Juncker presidenteak 2014ko azaroaren 26an EBrako Inbertsio Planaren harira aurkezturiko Inbertsio Plana zela eta, Europako Batzordeak plana sustatzeko bira bat jarri zuen abian. Helburua estatu kideetan sustatzeaz gain, eskualdeko hiriburuetan ere bultzatzea zen. Birarekin bat eginik, Europako Batzordeak eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak hazkundera eta enplegua sustatzeko EBko Inbertsio Plan horretan zentratutako Herritarrekiko Elkarrizketa bat antolatu zuten. Bertan parte hartu zuten Katainen presidenteordeak, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Europar Batasunerako Estatu idazkariak (une horretan Iñigo Mendez de Vigo).

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak koordinatzen du Euskadirako proiektu estrategikoen hautaketa prozesua, EAEko hainbat erakunderekin harremanetan jarrita, eta Europako Inbertsio Bankuaren taldearekin kontrastatzen ditu aldizka. Dagoeneko lau bilera egin dira Euskadin eta Madrilen adierazitako Bankuko ordezkariekin, eta zenbait hartu eman izan dira Katainenen kabinetearekin, Bruselan. Arlo horretan, nabarmentzekoa da azaroaren 6an Bilbon eginiko jardunaldia, berrikuntza industrialak babesteko eskuragarri dauden finantza tresnak aurkezteko; esaterako, INNOVFİN eta FEIE, baita Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariak 2015eko azaroaren 24an Juncker Planari buruz eginiko aurkezpena ere, Intergune-ren esparruan.

Euskadiren proiektzioari dagokionez, beste eskualde batzuetan eta beste eskualde batzuekin, Suediako Skane eskualdetik etorritako ordezkariak Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzara eginiko bisita nabarmendu nahi dugu; haren helburua Euskadiko erakunde bilbea eta Ordezkaritzaren lana lehen eskutik ezagutzea zen.

Martxoaren 17an Herbehereetako Noord-Holland eskualdeko ordezkariak bati aurkeztu zitzaion Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzak egiten duen lana, Europako hiriburuan eskualdeen interesak babesten dituen erreferentziatzko erakunde gisa.

Gainera, ekainean Europako beste eskualde batzuekin egin zen bilera Ordezkaritzaren egoitzan, eskualde mailako Gizarte Aurrerapenaren Indizearen proiektua aurkezteko. Proiektua Europako Batzordearen Eskualde Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren, Social Progress Imperative-ren eta Orkestraren (Lehiakortasunerako Euskal Institutua) artean egin da, eta gizarte eta ingurumen adierazleak erabiltzen ditu BPGarekiko osagarri (eta kontraste) gisa. Urriaren 12an, Open Days ate irekien jardunaldien esparruan aurkeztu ziren bai indizea, bai Euskadiren kasua indize horren barruan.

Hain zuzen, urriaren 13an, eta ate irekien (Open Days) jardunaldietan hamaika urtez jarraian parte hartu ostean, Smart Maritime Alliance izeneko itsas eskualdeen talde bateko buru izan zen Euskadi urte horretan. Bertan, kide izan zituen honako eskualde hauek: Liguria, Loirako herria, Finlandia hego-mendebaldea eta Gales, eta haiekin batera bigarren

urtez heldu diete itsasoarekin eta Atlantikoarekin loturiko gai, aintzat hartuta Europa testuinguru oso egokia dela horretarako. Honako hau da konferentziaren izena: “Maritime Regions and Smart Growth for business, job, innovation and skills” (Itsas eskualdeak eta hazkunde adimenduna negozioetarako, enplegurako, berrikuntzarako eta gaitasunetarako).

Open Days jardunaldietako gaiekin harreman estuan, eta Estrategia Atlantikoaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak arduratu da, Euskal Herriko Itsas Foroaren laguntzarekin, Euskadik Estrategia Atlantikoaren esparruan duen posizioari buruzko euskal eragileen koordinazioaz, baita 2014-2020 Atlantikoko Gunea Nazioz Gaindiko Lankidetzaren Programan parte hartzeko prestaketa lanez ere. Koordinazio lanetarako hainbat bilera eta informazio eguneratuaren trukea egin dituzte. Era berean, Eusko Jaurlaritzak aktiboki parte hartu du Arku Atlantikoko Batzordearen Estrategia Atlantikoa Taldeko bileretan, eta Batzorde horretako gainerako lantaldeen bileretan.

2015ean zehar Euskadiren posizionamenduaren gaia lantzen jarraitu da, KIC direlakoei dagokienez (Knowledge & Innovation Communities, hau da, Jakintza eta Berrikuntza Komunitateak), bereziki fabrikazio aurreratuaren arloan.

Bestalde, martxoaren 24an eta 25ean, Vanguard ekimenean parte hartzen duten Euskadiko eragileek Eskoziako gobernuak Edinburgon antolatutako Goi Mailako Ekitaldian parte hartu zuten. Ekitaldi horren helburua Vanguard Ekimenak ordura arte eginiko aurrerabideari buruz gogoeta egitea zen, baita ekimena eskualde eta Europa mailan sendotzeko egin beharreko ekintzak eztabaidatzea eta adostea ere.

Prestakuntzaren arloan, unibertsitatea-enpresa ardatza landu da, bai Batasunak, bai Euskadik, lehentasunezko zatitza jotzen baitute, eta horri jarraikiz, Euskal Herriko Unibertsitateak Unibertsitatea-Enpresa Europako Foroan parte hartu zuen. Parte hartze horrek aukera eman dio Euskadiri ondorengo foroetan egoteko.

Lanbide heziketari eta goi-mailako hezkuntzari dagokienez, eta haiek Europako proiektuetan duten inplikazioari begira, Europako hainbat forotan lehentasuna eman zaie hainbat espezializazio esparruri; esaterako, itsas arloko ikasketei eta manufaktura aurreratuari. Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordeak antolatutako Lanbide Heziketarako eta Ikaskuntzarako Europako Gailurrean parte hartu zuen, eta bertan, jardunbide egoki gisa hautatu zuten lanbide heziketarako Euskadiko estrategia.

Kulturaren arloan, Europako Batzordeak ikus-entzunezko sektorearentzat zerga pizgarri bat (% 30 ikus-entzunezko ekoizpenei) abiarazteari buruzko Eusko Jaurlaritzaren proposamena onartu izana eta Etxepare Institutua EUNIC taldean (Europar Batasuneko estatuetakoko kultur institutu nazionalak biltzen dituen sarea) sartu izana nabarmendu nahi ditugu. Sormen eleaniztuna, Europako eta kanpoko posizionamendua, eta kultur diplomazia deiturikoa (diplomazia publikoaren zati gisa, zeina eragileengatik, hartzailengatik eta baliabideengatik berezitzen den diplomazia tradizioa) dira Etxepare sare horretan bultzatzen ari den gaiak.

Zinemaldiari dagokionez, azpimarratzekoa da 2015ean *Glocal Cinemas/Big Little* izeneko Europa mailako plataforma bat jarri zela abian EBko 12 estatu eta eskualderen parte hartzearekin. Plataformaren helburua Europa mailako sare bat ezartzea da mugikortasuna eta hizkuntza ez hegemonikoetan eginiko ikus-entzunezko koprodukzioak bultzatzeko, eta gure ikus-entzunezko ekoizpenak Europa eta nazioarte mailan posizionatzeko.

Urriaren 14an izan zen *Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutunaren* adierazlearen garapenari buruzko proiektu pilotuaren amaierako konferentzia. Gutunaren helburua berdintasunaren aldeko tokiko eta eskualdeko agintarien konpromiso publikoa areagotzea da, eta orain arte Europako 32 herrialdetako 1500 agintarik sinatu dute (33 Euskadikoak). Jardunaldian zehar Euskadiko errealitatea, eta Emakunde eta EUDEL berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko egiten ari diren programak aurkeztu ziren.

Abenduaren 7an jarri zen martxan Aldaketa Demografikoaren Europako Ituna Eskualdeetako Lantaldean, Europako Batzordearen eta AFE-INNOVNET sare tematikoaren babesarekin. Itunaren helburua honako hauek bultzatzen dituzten inguruneen garapenarekiko konpromisoa duten tokiko eta eskualdeko agintariak inplikatzeko da: zahartze aktibo eta osasuntsua, bizi itxaropen osasuntsua areagotzea, adinekoen bizitza independentea eta ongizatea hobetzea, eta adin guztientzako gizarte bat sortzea. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila itunari atxiki zaio.

Klima aldaketaren arloko Europar Batasuneko politika abenduan Parisen egin zen Klimari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparruaren Aldeen Konferentziak –COP21– markatu du 2015. urtean. Horrekin lotuta, hainbat konferentzian parte hartu dugu Euskadi klima aldaketaren borrokarekiko konpromisoa duen eskualde gisa posizionatzeko, berotegi efektuko gasak murrizteko eta energia garbiak lortzeko politika handinahieiei esker.

Europako eta nazioarteko erakundeek lankidetzaren arloan ekimen eraginkor eta aitzindarietan lider den eta lankidetzaren eredu berriak bultzatzen dituen Europako eskualdeetako jotzen dute Euskadi. Aurrekoarekin lotuta, CPMRko (180 eskualde biltzen dituen plataforma) Lankidetzako Lantaldearen buru hautatu zuten 2014an; ondorioz, zuzeneko elkarrizketak izan zituen Europako erakundeekin eta ekimen estrategikoetan parte hartu zuen haiekin, garapenerako etorkizuneko agenda ezartzen ari den nazioarteko Global Task Force-ren kide gisa. Era berean, Euskadiren presidentetzapean, jarrera komun bat lortu da Europan eskualdeen desafio globalei dagokienez; hori guztia CRPMren esparruan bultzatu da (CPMRren 180 eskualdeen aho bateko adostasunarekin).

2015eko abenduan egin zen Bruselan Bikaintasunaren Europako Destino Turistikoaren – EDEN 2015 ziurtagiria entregatzeko ekitaldia, Goierri izan zelarik saritua edizio horretan. Saria Europa mailan destino jasagarri eta bikain bati emandako kalitate zigilu bat da. Goierri bikaintasuneko Europako destinoen sareko kide da hortaz, eta horrek lurraldearentzat interesgarriak diren ekimenak ekar ditzake. EDEN saria jaso duen Euskadiko lehen destinoa da.



### **3. Txosten interesgarri jakin batzuk lantzeko balio izan duten beste bisita eta topaketa batzuk**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak ehun bilera eta topagune baino gehiago antolatu ditu euskal politika eta ekonomiako sektore garrantzitsuen eta Europako erakundeetako eta beste antolamendu batzuetako ordezkarien artean, euskal interesen posizionamenduan lehentasuna duten dosierak aztertzeko, iritziak eta esperientziak trukatzeko eta harremanak egiteko.

Estatuko Laguntzen dosierren kasuan, Eusko Jaurlaritzak bere posizioa defendatu du gobernu arloei eragiten dieten espedienteetan: hala nola industria alorreko Gauzatu programa (oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortzeko eta garatzeko), Indartu programa (EAEko eskualde ahulak biziberritzeko), I+G+b programak, nekazaritza alorreko laguntzak (landa guneen sustapen eta garapenerako Erein programa), euskararentzako laguntzak, etab.

### **4. Esku hartzeak gaurkotasunezko konferentzia eta eztabaidetan. Euskadirentzat interesekoa den informazioa ardatz duten ekimenak zein bilerak antolatzea eta horietan parte hartzea**

Ekimen garrantzitsuenetako bat izan da Jyrki Katainen Enplegu, Hazkunde, Inbertsio eta Lehiakortasunerako Europako Batzordeko presidenteordeak Euskadira egin zuen bisita – jada aipatua–, 2015eko otsailaren 26an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren babesa izan zuena.

5. eranskinean euskal erakundeen parte hartzea izan duten hitzaldi, ekitaldi eta eztabaida guztiak daude zehaztuta, baina jarraian gure ustez garrantzitsuenak izan direnak aipatuko ditugu.

Otsailaren 15ean, Europako Gaietarako Zuzendaritzak Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako informazio hitzaldi batean parte hartu zuen, aztergai izanik EBren araudia estatu laguntzei buruz eta administrazio publikoek Europako Batzordeari laguntza horien berri ematean erabili behar dituzten prozedurei buruz.

Martxoan, Europako Batzordeko berrikuntza eta enpresa unitate burua TEKNIKA n egon zen bisitan, eta informazio saio bat egin zuten.

Apirilaren 16an, Daniel Calleja Europako Batzordeko Enpresa, Industria eta Barne Merkatuko zuzendari nagusiak informazio jardunaldi batean parte hartu zuen, Batzordeko beste kide batzuekin batera, COSME eta Horizon 2020 programen finantzaketa aukerei buruzkoa. Jardunaldia SPRIk antolatu zuen, Bilbon.

Ekainean, Europako Batzordeko ordezkariak etorri ziren Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatu zuen Lanbide Heziketako Nazioarteko Batzarrerara.

2015eko urrian, Euskadik txosten bat aurkeztu zuen Galeseko Gobernuak Bruselan antolatu zuen mintegi batean, lehentasunak eta proiektu aukera posibleak partekatzeko lankidetzat atlantikoaren esparruaren baitan, 2014-2020 Atlantikoko Gunea Nazioz Gaindiko Lankidetzat Programaren lehen deialdiari begira.

Azaroaren 30ean, Euskadik aktiboki parte hartu zuen Corinna Cretu Eskualde Politikako komisarioak eskualdeetako ordezkariekin egin zuen bileran. Kohesio politikei buruzko iritziak trukatu zituzten.

2015ean zehar, hainbat informazio saiotan parte hartu zen Europako Parlamentuan eta Batzordean, Eskualdeetako Lantaldean eta Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordean, garapen ekonomikoari buruzko gaiak aztertzeke.

Adibidez, aipatzekoa da IK4-Gaiker zentro teknologikoaren partaidetza fabrikazio aurreratuari buruzko mintegian (*Developing new industrial value chains through open innovation collaboration spaces*), RIM+ proiektuak antolatua (Regional Innovation Monitor), Euskadin alor honetan martxan dauden proiektuen berri emateko. Oscar Salas IK4-Gaikerreko Ezagutza Zientifiko-Teknologikoko zuzendariak ACTIMAT proiektua aurkeztu zuen – ETORTEK programak finantzatua–, helburutzat duena sakontzea garraioaren eta energiaren sektoreetako manufaktura enpresentzat erabilgarriak izan daitezkeen material berrien alorrean.

Aipatzekoa da ere Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren parte hartzea Fabrikazio Gehigarriari buruzko FoFam proiektuan (*Industrial and regional valorisation of FoF Additive Manufacturing Projects*) –H2020 programak finantzatua–, gai honetako eskualde mailako aditu gisa.

Nabarmentzekoak dira ere itsas energiaren alorrean Euskadiren posizionamendua sendotzeko eginiko saioak, Europako Batzordeko Energia Zuzendaritza Nagusiarekin eta Itsas eta Arrantza Gaietarako Zuzendaritza Nagusiarekin eginiko bileretan.

Gainera, energia alorreko espezializazio adimenduneko plataformaren (S3P-Energy) sorreran parte hartu dugu, Hirigintza eta Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak, Energia Zuzendaritza Nagusiak eta Ikerketako Zentro Komunak (JRC, ingelesez) batera abian jarritako egitasmoa. Plataformaren helburu nagusia da energiarako Kohesio Politikako funtsak eraginkorki erabiltzea eta sektore honetako berrikuntza jarduerak hobeto lerrokatzea, estatu, eskualde eta toki mailan, berrikuntzaren alorreko teknologia eta soluzioen identifikazioaren bidez, EBren politika energetikoaren lehentasunak modurik errentagarrienean bultzatzeko.

Plataforma horrekin elkarlanean, eskualdeei eskaintzen dizkien potentzialtasunak ezagutarazteko, *Embedding Energy Union in the regions* saioaren antolakuntzan parte hartu zen, ERRIN sareko energia lantaldearen jardueren baitan.

Euskadin, *Ocean Energy Forum*-aren 4. Konferentzia egin zen, 2015eko uztailaren 1ean, energia ozeanikoaren garapena erraztuko duen ibilbide orri bat definitzeko helburuarekin. Europako Batzordeak Bizkaiko hiriburuan antolatu zuen jardunaldi hori aukera bikaina izan zen Euskadik itsas energiaren alde egin duen apustua ezagutarazteko eta alor honetako euskal proiektuek nazioartean duten erreferentzialtasuna ikusarazteko.

### **Ikus 5. eranskina**

### **5. EBrekin zerikusia duten sareetan, erakundeetan eta foroetan egindako lana**

“Vanguard Ekimena”, zeinaren sortzaileetako bat den Euskadi, 30 eskualde kidek osatzen dute gaur egun. Ekimen horrek berekin dakar gure politika industrialaren eta berrikuntza politikaren ardatzean espezializazio adimendunaren estrategia kokatzeko konpromisoa, horren helburu izanik lehiakortasuna eta hazkundera bultzatzea, baita enplegu sorrera ere.

2015eko bigarren seihilekoan, Euskadik bere gain hartu zuen Vanguard Ekimenaren txandakako presidentetza. Koordinatu egin dugu Ekimenaren funtzionamendua, haren organo nagusien (Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Nagusia) bileretarako deiak eginez eta bilera horiek zuzenduta. Gainera, elkarlan estuan jarraitu dugu Europako Batzordeak alor honetan dituen hainbat zerbitzuekin: Joint Research Centre –JRC–; Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusia –REGIO–; Barne Merkatu, Industria, Ekintzaitza eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusia –GROW–; eta Ikerketa, Zientzia eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia –RTD–.

Bestalde, Euskadik, SPRIren eta Energiaren Euskal Klusterraren eskutik, Vanguard Ekimenaren baitako ekintza pilotu baten buru izaten jarraitu du, Eskoziarekin batera. Ekintza horretan bilduta daude berrikuntzaren arloko hainbat eragile, Nafarroakoak, Andaluziakoak, Asturiaskoak, Dalarnakoak, Emilia-Romañakoak, Flandriakoak, Lombardiakoak, Portugalgo iparraldekoak, Skaniakoak, Ostrobotniakoak eta Danimarkako hegoaldekoak. Ekintza pilotu horrek “Fabrikazio aurreratua aurkako inguruneetako energia aplikazioetarako” du izena, eta helburutzat du Europar Batasuna munduko aurrendari bilakatzea itsas energia berriztagarrien eta off-shore energiaren sektorerako tresna eta osagaien fabrikazioan.

Eskozia eta Euskadi buru dituen ekintza horrez gainera, Euskadik "Fabrikazio Eraginkorra eta Jasangarria" proiektu pilotuan eta bio-ekonomiari buruzko proiektu pilotuan ere parte hartzen du.

Era aktiboan parte hartu dugu Vanguard Ekimenaren proiektu pilotuak finantzatzeko lantaldean, helburutzat duena finantzaketa tresnak bilatzea ekintza pilotuetatik sortutako proiektuentzat, gutxieneko heldutasunera iristen direnean. Alde horretatik, aztergai izan dira eskualdeetan erabiltzen diren finantzaketa bideak (berrikuntzarako txekeak, etab.), eta Europako Inbertsio Bankuak eskaintzen dituen formulak.

Hizkuntz aniztasunean eta euskararen posizionamenduan, baita sorkuntza eleaniztunaren alorrean ere, lanean jarraitu dugu Euskadik NPLD sarean (*Network to Promote the Linguistic Diversity*) duen presidentetzan. Horrekin batera, ikus-entzunezko Eskualde Funtsen Europako Sarean (CINEREGIO) parte hartu dugu, Etxepare Institutuaren lana bultzatuz EUNIC sarearen barnean (EBko Kultura Institutu nazionalak batzen dituen sarea), eta lidergo lana partekatuz kultura eta sorkuntza industrien Europako eskualdeen RICC sare informalean (*Regional Initiative for Culture and Creativity*).

Jadanik aipatu dugu Euskadik CPMRren (Europako Periferiako Itsas Eskualdeetako Konferentzia) lankidetzako lantaldean duen lidergoa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia ari da zeregin horretan, Europako eta nazioarteko bazkideen laguntzaz: hala nola Nazio Batuak eta GKEak nahiz toki eta eskualdeko agintariak biltzen dituzten plataformak. Lerrokatu egin dira Euskadiko lankidetzak esparru gidaria eta Europako lankidetzak esparrua,

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

---

eta aktiboki parte hartu dugu Europan alor honetan dauden bi hitzordu garrantzitsuetan: *Assises of Decentralised Cooperation* eta *Development Days 2015*.

Horrez gainera, Euskadik CPMRren Arku Atlantikoko Batzordearen lantalde guztietan parte hartzen du.

Lanbide heziketari dagokionez, bultzada eman diogu Euskadik Europako EARLALL sarean duen zuzendaritza eta presidentetza prozesuari.

Era berean, sendotu egin da kultura eta sorkuntzaren aldeko Europako eskualdeen RICC sarea (Euskadik sare horren buruzagitza partekatzen du), Europako erakundeekiko eta eskualdeekiko zuzeneko harremana, eta kulturaren eta sorkuntzaren defentsa Europako *Smart Specialisation* agendan.

Aipatzekoa da ere Euskadiren parte hartzea Ikerketarako eta Berrikuntzarako Europako Eskualdeen Sareko (ERRIN) gobernu organoetan, fabrikazio aurreratuaren lantaldean – liderra izanik–, energiaren lantaldearen zuzendaritza batzordean eta hiri adimendunen taldean.

Turismoaren alorrean, Euskadik lanean jarraitu du Europako NECSTOUR sarean.

Euskadi lanean ari den sare tematiko guztiak **6. eranskinean** bildu dira.

### **6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteak jakinaraztea eta horien berri ematea**

Aurretik ere adierazi denez, euskal erakundeen ohiko zereginetako batzuek eurekin dakarte, berez, Europar Batasunean jardun behar izatea. Europako Erkidegoko zuzenbidea betetzetik eratorritako betebeharrekin lotutako eginbeharrak dira, nagusiki. Gai horri dagokionez, aipatu beharra dago Europako Gaietako Zuzendaritzak Jaurlaritzako sailentzat egiten duen aholkularitza lana. Estatuko Laguntzen eta Europako Erkidegoko Zuzenbidearen Urraketa Prozeduren gaietan ematen die aholkularitza, erkidegoetan Estatuko Administrazioarekin egiten diren komunikazioen organo koordinatzailea baita EAEn.

Eremu honetan nabarmentzekoak dira Lehiaren Zuzenbidearen eta Estatuko Laguntzen baitako jarduera guztiak. Arlo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izandako laguntza espedienteak jakinarazi zaizkio Europako Batzordeari, jakinarazpena beharrezkoa izan bada, eta, horrez gainera, Batzordeari informazioa eman zaio espediente zehatzei buruzko informazioa eskatu duenean, Laguntzei buruzko datu estatistikoak helarazteaz gain.

Ez da beharrezkoa izan Lehiaren Zuzendaritza Nagusiarekin Bruselan bilerak antolatzea Estatuko laguntzen gaineko espedienteak ebazteko.

Europako Erkidegoko Zuzenbidearen Urraketa Prozeduren arloan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik gure betebeharrak betetzen jarraitzen dugu, eta informazioa nahiz dokumentazioa igortzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoa tartean den prozedura guztietan.

### **7. Europako Erkidegoko gaien berri ematea eta zabaltzea**

2015ean eginiko lanaren ondoren, 2016. urtearen hasieran, eguneratu egin da Europako Gaietarako Zuzendaritzaren eta Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzaren webgunea. Web horren bidez, bi erakunde horien jardun eremu nagusiei buruzko informazioa eskura daiteke, eta lotuta dago Europako Informazioaren Euskal Sarearekin (EIES).

Zentzu horretan, 2015ean, ikuskatu eta optimizatu da Euskadin Europari buruzko informazioa zabaltzeko tresna eta atari nagusia, hots, Europako Informazioaren Euskal Sarearen (EIES) webgunea [www.revie.euskadi.eus](http://www.revie.euskadi.eus). Atari horren jarraipena ere egin da

Prentsa eta komunikazioari dagokionez, aurreko urteetako moduan jardun da, eta sailei zein eragile publikoei laguntza nahiz zerbitzua eman zaizkie prentsaurrekoak egiteko, adierazpenak antolatzeko eta estaldura eman nahiz prentsa oharretan jasotzeko Europako erakundeetan, Europako sareetan edo Belgikako agintarien aurrean gauzatutako ekimen zein jarduerak. Era berean, lankidetzan jarraitu dugu Europako erakundeetako prentsa eta komunikazio zerbitzuekin eta hedabideetako berriemaileekin.

### **VI. MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA GAIETAN EGINDAKO JARDUNAK**

#### **IV.1 “Akitania-Euskadi Euroeskualdea” Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea (LLET)**

“Akitania-Euskadi Euroeskualdea” Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea (LLET) Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 1082/2006 Erregelamenduan (uztailaren 5koa) oinarrituta sortu zen, eta aintzat hartuta 37/2008 Errege Dekretua, Erregelamendu horren aplikazio eraginkorrerako beharrezko neurriak hartzekoa (urtarrilaren 18koa); eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitania Eskualdeak 2011ko abenduaren 21ean izenpetu zituzten Hitzarmenaren eta Estatutuen bitartez gauzatu zen.

LLETren helburu nagusia Euroeskualdearen garapen ekonomikoan, sozialean eta kulturean laguntzen duten lankidetzak ekintzak egitea da. Era berean, Euroeskualdea ordezkatzeko xedea du, bai tokiko, eskualdeetako eta estatuetaiko instantzietan, bai Europako eta nazioartekoetan.

Euroeskualdeak urtero egiten duen jarduera garrantzitsuenetako bat mugaz haraindiko proiektuentzako laguntza deialdiak bultzatzea da; laguntza horiek Bidasoaren bi aldeetako erakundeen arteko elkarlana sustatzen dute. 2015. urtean, laguntzak bi deialdietan biltzea adostu zen:

- Lehenengo deialdia apirilean argitaratu zen, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen eremuan oinarritua eta Kultura, Hezkuntza, Eleaniztasuna, Gazteria eta Kirola ardatzari buruzkoa. 250.000€-ko aurrekontuaz, 17 proiektutan erabili zen, deialdira aurkeztu ziren 43 eskaeren artean hautatuak.
- Bigarren deialdiko eskaerak urrian jaso ziren, Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresen Lehiakortasuna ardatzera bideratuak. 200.000€-ko aurrekontuaz, 4 proiektutan erabili zen, aurkeztu ziren 17 eskaeren artean hautatuak.

2014ko abenduaren 19an, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Plan Estrategikoa aurkeztu zen, Hendaian. LLETren urte anitzeko “ibilbide orria” da. 4 ardatz nagusiren inguruan egituratua, oinarritzat hartu zen 2015eko jarduera nagusiak burutzeko, hainbat tresnaren bidez: hala nola hitzarmen estrategikoak edo LLETk finantzaturako proiektuen deialdiak.

Hala, Etxepare Institutuaren ekimenez, Euskal Kultur Erakundearekin elkarlanean, “Aquitaine.eus” izeneko hitzarmen estrategikoa egin zen LLETrekin, helburu nagusia izanik beren obrak Akitanian erakusteko aukera ematea hainbat diziplinako euskal sortzailei (eta alderantziz).

2015eko urrian, LLETk bi hitzarmen estrategiko sinatu zituen: bata AEN sarearekin eta bestea Nazioarteko Bikaintasun Campusarekin.

AEN sarea goi mailako hezkuntzaren eta ikerketaren mugaz gaindiko eremu bat da, unibertsitate lankidetzak dinamiko eta lehiakor bat bultzatzeko European eta nazioarte mailan. Hitzarmenari esker, lehenengo Erasmus deialdia egingo da euroeskualde mailan, 2016-2017 ikasturtearen lehen seihilekoan, 14 master ikaslerentzat.

Aldiz, Euroeskualdeko Bikaintasun Campusarekin eginiko hitzarmenaren bidez, sendotu eta bizkortu egingo dugu unibertsitate jarduera euroeskualdean, lan akademiko, ikerketa, ezagutzen transferentzia eta berrikuntza eremu bat eratuz, eskaintza akademiko bateratu baten bitartez.

2015ean, LLETk hitzarmen estrategiko bat izenpetu zuen Orkestrarekin (Lehiakortasunerako Euskal Institutua) eta Bihartean-ekin (Mugaz Gaindiko Merkataritza Ganbera), Interclustering proiektua garatzeko Akitania eta Euskadi artean. Uztailean, bi aldeetako klusterrak elkartu ziren, mugaz gaindiko lurraldean lan egiten duten klusterren eta enpresen arteko elkar ezagutzan sakontzeko.

### Euroeskualdeko prestakuntza eta enplegu estrategia

2015eko azaroan, proiektu bat aurkeztu zen POCTEFA programaren lehen deialdira (Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa 2014-2020), mugaz gaindiko enpleguaren egoera aztertzeko helburua zuena. Proiektuaren aurrekontua 253.012 €-koa da, helburu orokorra izanik Akitania eta Euskadi arteko enplegu arloko alde biko harremanen egungo egoera gainditzea.

Euroeskualdearen 2015eko beste lan lerro garrantzitsuenetako bat izan zen Oinarri Akordio bat prestatzea bi eskualdeen artean, lanbide heziketaren arloan, bultzada emateko mugaz gaindiko garapenari, enpleguari eta profesional gazteen mugikortasunari. Akordioak esparru bat sortu nahi du prestakuntza akademikorako eta praktikan oinarritutako esperientziarako, mugaz gaindikoa eta duala, euroeskualdeko mugikortasuna bultzatu eta nazioarteko esperientzia eskuratzeko.

### Garraioa eta mugikortasuna

Urriaren 28 eta 29an, Europako Batzordeak sustatuta, Korridore Atlantikoaren lantaldeak bilera bat egin zuen Bordelen, Akitaniako Eskualde Kontseiluan. Trenbide proiektuak aztertu ziren, eta muga igarotzeko proposatutako irtenbideak. Bilkuran izan ziren, Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaz gainera, Alain Vidalies Frantziako Estatuko Garraio idazkaria, Alain Rousset Akitaniako presidentea eta Carlo Secchi Europako Batzordeko Garraio koordinatzailea.

Urtean zehar, bilera ugari egin ziren mugikortasun arloko eragile guztien artean, garraioarekin zerikusia duten proiektu eta ekimenak aztertzeko: SNCFren eta Euskotrenen arteko konexioa hobetzea, Hendaiko geltokiaren proiektu multimodala ziurtatzea eta bidaiarientzako informazioaren garapenean sakontzea.

Bidaiarientzako informazioari dagokionez, 2015eko apirilaz geroztik erabilgarri dago mugaz gaindiko joan-etorrietarako [www.transfermuga.eu](http://www.transfermuga.eu) ataria.

2015eko azaroan, Transfermuga 2 proiektua aurkeztu zen POCTEFA programaren lehenengo deialdira. Helburu bikoitza zuen: alde batetik, mugaz gaindiko garraio eskaintza, intermodalitatea eta multimodalitatea garatu eta hobetzea; bestetik, berrikuntza irekia sustatzea garraioaren esparruan, bidaiarientzako informazioa hobetzeko. Proiektuaren aurrekontua 863.158 €-koa da.

## **IV.2 Pirinioetako Lan Elkartea**

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

---

Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) 1983an sortu zen, eta honako kide hauek ditu: Akitania, Midi-Pyrénées, Languedoc-Roussillon, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Printzerria.

Urte askoan nortasun juridikorik gabeko erakunde bat izan ondoren, 2005ean Partzuergo bihurtu zen, Baionako Tratatuaren babesaz.

2015ean, PLEak, Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako 2014-2020 aldirako Programaren (POCTEFA) gestio arduradun gisa, lehenengo proiektu deialdia egin zuen, irailaren 10etik azaroaren 10era.

Gogora ekarri behar da POCTEFAk ia 190 milioi euroko zuzkidura jasotzen duela FEDER Funtsetik, hurrengo deialdietan onartuko diren mugaz haraindiko proiektuen gastuen % 65 arte finantzatzeko.

POCTEFA 2014-2020 Programazio Batzordeak maiatzaren 11n egin zuen bileraren ondoren, Eskualde Garapeneko Europako Funtzaren (EGEF) 71,2 milioi € programatu ziren mugaz gaindiko lurralderako, programazioan bildutako 58 proiektuen bidez. Hau da, programaren guztizkoaren %40.

Hautagitzak aurkezteko epea 2015eko azaroan amaitu zen, eta 122 hautagai aurkeztu ziren guztira, 151 milioi € eskatzen zituztenak. Proposamenak Programa Operatiboaren edozein ardatzetakoak izan zitezkeen. Ondorioz, hainbat arloekin lotutako mugaz gaindiko lankidetzak ekimenak programatu ziren: turismoa, I+G, klima aldaketarako egokitzapena, hondamendi naturalen prebentzioa, ondare naturalaren eta kulturalaren babesa, prestakuntza eta gizarteratzea.

EGEF funtsek proiektuen kostu osoaren %65a ordaintzen dute, Programa Operatiboak ezarri moduan.

Programaren aurrekontuaren %40a programatu ondoren, gainerakoa (%60) etorkizuneko proiektu deialdietarako utzi da, programazio aldian zehar gauzatuko direnak.

Programatutako 58 proiektuetatik 10etan, ilara buru edo proiektuaren koordinatzailea egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan zuen erakunde bat izan da. Zehazki, honako hauek:

<u>PROIEKTUA</u>	<u>Ilara buru</u>	<u>emandako EGEF</u>
TransferINN	Azaro Fundazioa	1.155.013 €
HEALTH LSR	Leartiker SCoop	1.286.083 €
INNOLACT	Leartiker SCoop	1.162.295 €
CYCLALG	Neiker	920.174 €
CONNECT Innovation!	Bidasoa Garapen Agentzia	1.191.926 €
Transfron3D	TECNALIA	1.052.525 €
EAS	Eusko Jaurlaritza	389.018 €
TXINBADIA+	Eusko Jaurlaritza	2.434.029 €
TRANSFERMUGA 2	Akitania / Euskadi LLET	539.461 €
Empleo AE	Akitania / Euskadi LLET	166.408 €



### **VII. ETORKIZUNEAN GAUZATU BEHARREKO JARDUNEN PROPOSAMENAK**

#### **A. Zeharkako esparruko proposamenak**

2016ko martxoaren 15ean, Iñigo Urkullu lehendakariak, Eusko Jaurlaritzako sailburuez lagunduta, Europari eta iheslarien krisiari buruzko adierazpen instituzional garrantzitsu bat irakurri zuen, honako hitz hauekin hasiz zehazki: *“Euskadiren ametsa Europa izan da betidanik, Europa batua eta arimaduna; demokraziarekin, askatasunarekin eta giza eskubideekin loturiko kontuetan erreferente den Europa.”*

Eta aurrerago zioen: *“Shuman, Monnet, De Gasperi, Adenauer eta tankera horretako beste hainbatek egin zuten moduan, Eusko Jaurlaritzak abotsa goratu nahi du. Eta, zerbatic ez, Agirrek, Irujok edo Landaburuk botatako hitz konprometitua errepikatu ere bai. Haien eredia Europar Batasunaren proiektuaren sorrera printzipioak berreskuratzea da. Proiektu honen identitatea, bideragarritasuna eta iraunkortasuna eratu zituzten jatorrizko balioak berreskuratzea.”*

Hiru konpromiso hartu zituen:

- Elkartasun konpromisoa. Gerra batetik ihesi, muturreko sufrimendu, behar eta larrialdi egoeran daudenei premia eta atzerapenik gabe laguntza emateko behar humano eta humanitarioa.
- Ardura konpromisoa. Europaren funtsa pertsonen, pertsona guztien, giza eskubideak eta duintasuna defendatzeko ardura onartzea da.
- Legezketasun konpromisoa. Europak nazioarteko zuzenbidea bete behar du. 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Adierazpenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 18. artikulua Europak nahitaez bete beharreko arauak dira.

Eta amaitzeko:

*“Ekintza jakinak eskatzen ditugu, bai Eusko Jaurlaritzak bai euskal gizarteak, beti amestu dugun eta gure lanaren helburu den Europa batua, gizatiarra eta arimaduna lortzeko konpromiso horiek betetzeko.”*

Europak astindu bortitza izan du berriro, 2016ko martxoaren 22an Bruselan izandako eraso yihadisten ondorioz.

Hala, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak legealdiaren azken zatian ekin dio, aintzat harturik Europa batu baten balioak biziberritzeko espiritua, baita ahaleginaren espiritua eta lanaren diziplina ere, Euskadiren eta Europaren suspertze ekonomikoa lortzeko, modu adimentsu, jasangarri, arduratsu eta solidarioan.

Herbehereek dute Europar Batasunaren Lehendakaritza 2016ko lehen seihilekoan; bigarrenean, Eslovakiak hartuko du lekukoa. Herbehereek Europak jarraitu beharreko bidea zehaztu dute: hots, arreta jartzea herritarrentzat eta enpresentzat garrantzitsuenak diren gaietan (ekonomia oparotasuna, askatasuna eta segurtasuna), eta ez estatuek berek kudea ditzaketen alderdietan (hala nola osasuna, hezkuntza edo zergak).

Hala, lehentasunezko jardun eremuak izan dira (eta izaten jarraituko dute agintaldiaren amaierara arte): emaitza ikusgarriak bilatzea eszeptizismoaren aurka egiteko; migrazioa eta

nazioarteko segurtasuna; enplegua sortuko duen Europa berritzaile bat eraikitzea; eurogunearen finantza egonkortasuna eta sendotasuna; eta politika klimatiko eta energetiko jasangarriak.

Hain zuzen ere, Herbehereen lehendakaritzaren aldian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bilkura garrantzitsu bat antolatu du 2016ko ekainean, Euskadin, bi eguneko, Madrilen akreditatuta dauden Europar Batasuneko herrialdeetako enbaxadoreak elkartu dituena. Bisitan etorri diren diplomazialariek aukera izan dute gure herria bertatik bertara ezagutzeko, zuzenean, eta aukera emango digu horrek Euskadiren irudia hobeto zabaltzeko Europako leku guztietara.

Bestetik, 2015eko uztailan eratu ondoren, Nafarroako Gobernuak urrian adierazi zuen bat egin nahi zuela Akitania-Euskadi Euroeskualdearekin. 2016an, martxan dira LLETei buruzko Europako araudiak ezartzen dituen tramite formalak, eta urtea amaitzerako atxikitze prozesua amaitzea espero da.

Alde horretatik, honako ekintza hauek aurreikusi dira Euroeskualdean 2016. urtean:

- Garraio eremu intermodalari buruzko azterlana (SNCFk sustatutako proiektua), eta Euskotrenen Hendaia-ko geltokia egokitzeko obra zibilar buruzkoa (Euskotrenek sustatutako proiektua). Gainera, SNCFren Hendaia-ko geltokiaren bilmoldaketaren barnean, bidaiarientzako informazio pantailak eta Euskotrenen txartel banatzaileak instalatu nahi dira.
- Mugaz gaindiko enpleguaren egoeraren diagnostiko batean oinarritutako proiektua, 253.012 €-ko aurrekontua duena, POCTEFAren (Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa 2014-2020) lehenengo deialdira aurkeztu dena.
- Transfermuga proiektuaren bigarren edizioa (iaz egin zen lehena), POCTEFA programara ere aurkeztu dena, garraioaren esparruan. 863.158 €-ko aurrekontua.
- Bi proiektu deialdi egitea 2016an, 2015eko ardatz berberetan:
  - o “Kultura, hezkuntza, eleaniztasuna, kirola eta gazteria”.
  - o “Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresen Lehiakortasuna”.

250.000 eta 200.000 €-ko aurrekontuarekin, hurrenez hurren.

2016ko martxoan, Partenariotza Estrategiko berri bat onartu da, LLETren eta Ikaslan eta *Chambre de métiers et de l'artisanat 64* ganberaren artekoa, helburutzat duena I. Eskualde Foroa - Praktiken Erkidegoa antolatzea Irunen (Ficoba), mugaz gaindiko lurraldeko prestakuntza zentroak, enpresak eta LHko ikasleak bilduko dituena.

### **B. Arlo sektorialetako proposamenak**

Zeintzuk dira Europar Batasunean 2016rako eta hurrengo urteetarako aurreikusitako politika publikoetako jarduera ildoak? Zeintzuk dira arlo horietan Euskadik landuko dituen proposamen sektorial zehatzak?

2016. urtea giltzarri izango da Europar Batasunarentzat urratsak egiteko bere eginkizunik premiazoenean: hots, aurre egitea iheslarien mugimenduari eta migrazio presioa kudeatzea EBren kanpo mugetan. Europako Migrazio Agendak –Batzordeak 2015eko maiatzean aurkeztua– migrazioaren kudeaketari buruzko ikuspegi global bat eskaintzen digu, elkartasunaren eta erantzukizunaren printzipioetan oinarritua. Dena dela, estatuek bete egin behar dituzte hartutako konpromisoak, eta ahalegin handiagoa egin behar dute bi larrialdi mekanismoetan, Grezian eta Italian nazioarteko babesaren zain dauden 160.000 pertsona birkokatze eta EBtik kanpoko herrialdeetan dauden 20.000 pertsona Europar Batasunean kokatzeko. Bitarteko guztiak dira beharrezkoak.

2016ko martxoaren 7ko EB-Turkia goi bilerak –txostenaren lehen zatian aipatutakoa– goitik behera aldatu zituen bere garaian hartutako konpromisoak. Izan ere, Turkiatik Greziako uharteetara iristen diren migratzaile irregular berri guztiak kanporatzea erabaki zen, EBk kostuak bere gain harturik, eta Turkiatik iritsitako siriar bat birkokatzea EBko herrialdeetan Turkiak Greziako uharteetatik onartutako siriar bakoitzeko. 2016ko martxoaren 17 eta 18an egin zen Kontseilu Europarrean, Europako agintariek babes eman zioten EB-Turkia goi bileran hartutako erabakiei.

Testuinguru horretan, 2016ko apirilean, Batzordeak bi proposamen egin ditu: alde batetik, Europako asilo sistema aldatu eta Europara heltzeko bide seguruak eta legezkoak ezartzea; bestetik, sarrera eta irteeren sistema bat ezartzeari buruzko araudia berrikustea, mugetako kontrol prozedurak erraztu, azkartu eta sendotzeko EBra datozen beste herrialde batzuetako herritarren kasuan.

Euskadi hasi da dagoeneko iheslariak hartzen, gutxi izan diren arren, ez borondate faltagatik, gure gobernuak prest baitago guztiz pertsona horiei laguntzeko.

Ekonomia eta finantza gaietan, ECOFIN Kontseiluen eta hilean behingo Eurotaldeen bileren jarraipena egiten jarraituko dugu, baita Sei hileko Europarraren etapen jarraipena ere. Azken horri dagokionez, Batzordeak, ikuspegi berri bat ez ezik, hobetutako tresna multzo bat proposatu du gobernantza ekonomikorako; lehiakortasun kontseilu nazionalak eta aholku kontseilu fiskal europar bat sortzea, besteak beste. Gainera, Batzordearen eta Europako Parlamentuaren arteko hartu-emanak estutzea proposatu du, gobernantza ekonomikoko sistemaren kontu-emate demokratikoa hobetzeko. Horrekin batera, eurogunearen ordezkartza bateratuago bat eskatu du nazioarteko erakundeetan (Nazioarteko Diru Funtsean, batez ere). Hurbiletik jarraituko ditugu Euskadirentzat garrantzitsuak diren proposamen horiek guztiak.

Zerga arloan, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat zabalik dauden ECOFIN lantaldeetan parte hartzen jarraituko dugu. 2016an, lanean jarraituko dugu BEZren ekintza planaren jarraipenean eta Kontseiluaren Zuzentzari proposamenaren azterketan, zeinaren bidez arau batzuk ezarri nahi diren barne merkatuaren funtzionamenduari zuzenean eragiten dion saiheste fiskalaren aurka.

2016an, halaber, gertutik jarraituko ditugu Batzordeak aurkeztuko duen Gaitasunen Agenda, helburutzat duena pertsonengan inbertitzea bizitza osoan zehar; langileentzako kontziliazio politikak; genero berdintasuna sustatzen duten politikak; lan mugikortasunerako proposamenak; eta desgaitasun bat duten pertsonen ondasun eta zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko aukerak hobetzeko proposamenak. Hori guztia helburu argi batekin: hots, EAEko politikak EBn ezarritako parametroen antzekoekin –edo, are aurreratuagoekin– garatzea.

Europar, eskubide sozialen zutabe bat sortu nahi da, batasun ekonomiko eta monetario sakonago eta bidezkoago baten parte gisa, eta Euskadi eztabaida eta kontsulta publiko horretan egon dadin sustatuko da. 2016an Europako Gizarte Funtzaren 2014-2020 aldirako programa operatiboa gauzatzen jarraituko da Euskadin, eta 48.000 pertsonari baino gehiagori eragingo die.

2016an, arretaz jarraituko ditugu jada aipatu diren TTIPren negoziazioak. Oso urte garrantzitsua izango da, AEBko eta Europako ordezkariak lehenbailehen amaitu nahi dituztelako eztabaidak, azaroan Obamaren agintaldia amaitu aurretik. Gai korapilatsuak erabakitzeke daude oraindik: hala nola kontratazio publikoren gaia edo inbertitzaileen eta estatuen arteko desadostasunak ebazteko sistema.

Euskadin, 427 enpresak esportatzen dute erregulariki AEBra, eta 79 enpresa daude ezarrita 88 ekoizpen eta merkataritza inplatazioetan. Gainera, AEB euskal inbertsioek kanpoan duten lehen helmuga dira. Esportazioei dagokienez, azken bost urteetan, AEB euskal esportazioen hirugarren helmuga izan dira, Frantzia eta Alemaniaren atzetik.

TTIPren helburua da 850 milioi laguneko merkatu bat zabaltzea enpresa txiki eta ertainei, arau eta estandar komun batzuk ezarrita. Enpresa txiki eta ertainak Euskadiren egitura ekonomikoaren %90 baino gehiago dira, eta tratatu horren eragina erabatekoa izango da. TTIP pizgarri izango da lehia, berrikuntza eta nazioartekotzea areagotzeko, eta aukera berriak sortuko dira euskal industria ondo posizionatuta dagoen sektoreetan.

Gertutik jarraituko dugu ere 2014-2020 aldirako Nekazaritza Politika Bateratuaren erreforma, aldaketa handiak egin zituena laguntzen banaketan. Zuzeneko laguntzen eredu berriaren desafio nagusia hauxe da: ordainketa bakarretik (eskubide historiko indibidualetan oinarritua) oinarritzko ordainketaren –hektareen arabera– eta ordainketa berdearen –NPBren tresna berria, pizgarri izan nahi duena laborantza praktika egokiak sustatzeko ingurumen ikuspegitik, eta klimarentzat eta ingurumenarentzat onuragarriak izango diren azalerak mantentzeko– araubidera igarotzea, zenbatekoen banaketako eskualde mailako eredu batean oinarritzen dena. Labore iraunkor guztiak “berdeak” izango dira definizioz, dentsitate mugarik gabe, eta larreak ere sartzen dira, Euskadiren mesederako izango dena.

EBko Azpiegituretako politika berria garraioko Europaz haraindiko sare bat (TEN-T) osatzean datza 28 estatu kideetan zehar, hazkundera eta eraginkortasuna sustatzeko. Garraio azpiegituren finantzaketa hirukoiztu egingo da 2014-2020 aldirako eta 26.000 milioi eurokoa izatera igaroko da. Bide handi horietako bat Atlantikoko korridorea da, Lisboa eta Mannheim/Estrasburgo lotzen dituen, Iberiar Penintsula eta Frantzia zeharkatuz, Euskadin barrena.

Aipatzekoa da 2016ko urtarrilaren 26an lehendakariak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak eta Akitaniako presidentek Violeta Bulc Garraio komisarioari egin zioten bisita, bultzada emateko Euskal Y-aren eta Akitaniaren arteko loturari.

Bestetik, garraio garbi eta efizienteari loturiko proiektu berriak bultzatzen ari dira Euskadin, *Smart cities* estrategiaren barnean; besteak beste, hirietako garraio publikoa elektrifikatzeari loturikoak.

Kohesio politiken arloan, 2016an, estatu kide guztiei banatutako zenbatekoak berrikusiko ditu Batzordeak, 2017-2020 urteetarako kohesio politikaren «Inbertsioa hazkundera eta enpleguan» helburuari dagozkionak, banaketa metodoa aplikatuz une bakoitzeko eskualdeko BPGd per capitaren estatistika berrienetatik abiatuta.

2016. urte amaieran, Batzordeak 2014-2020 Urte Anitzeko Finantza Esparruaren (UAFE) berrikuspena aurkeztuko du. UAFEn tarteko berrikuspenaren bidez, aztergai izango da EBren lehentasunak hobeto finantzatzeko modua, baita EBren aurrekontua emaitzetara orientatzen jarraitzeko eta arauak sinplifikatzeko modua ere (adibidez, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsei –EIF funtsak– eta Nekazaritza Politika Bateratuari –NPB– dago kienez). Horrekin batera, finantzaketaren sinplifikazio handiago baterako aukerak ere landuko dira, Horizon 2020 programaren baitan.

Eskualdeak –Euskadi, horien artean– lanean hasi dira 2016an, bai UAFEn berrikuspenari begira bai 2020 ondoko kohesio politikari begira. Posizio dokumentuak lantzen hasi dira, Egitura Funtzen balioa defendatu eta haien iraupena eskatzeko, Europako eskualde guztientzat, 2020. urtetik harago.

Industria politikari dago kienez, 2016an, aipatzekoa da “Industria erronkak eta roadmap teknologikoa” izeneko mintegia, urtarrilaren 27an egin zena, Vanguard Ekimenaren baitan, Urkullu lehendakariaren hitzekin hasi zena. Fabrikazio aurreratuaren alorrean, Euskadik zuzentzen du, Eskoziarekin batera, “Inguru arrotzetan aplikazio energetikoetarako fabrikazio aurreratua” izeneko proiektu pilotua. Urtarrilaren 27ko mintegia eztabaidarako eta emaitzak balidatzeko foro gisa erabili zen, enpresek egun dituzten erronkei eta soluzio teknologiko posiblei dago kienez.

Otsailaren 15ean, Arantza Tapia sailburuak altzairuaren euskal industria defendatu zuen Bruselan, Txinako altzairuaren dumping-aren aurrean; aldiz, otsailaren 24an, hizlari izan zen Vanguard Ekimenaren Urteko Politika Bileran.

Ekainaren 1 eta 2an, Bruselan, “Smart Regions” izeneko goi konferentzia egin da, Europako eskualdeen espezializazio adimenduneko estrategiei (RIS3) buruzkoa. Euskadik bere RIS3-aren egungo abiaraztea aurkeztu du, konferentziaren erakusketa aretoaren stand batean. Bestetik, 2016an, martxan jarriko da “S34Growth” izeneko “Interreg Europe” ekimenaren proiektua. Eusko Jaurlaritza bazkide parte hartzailea da, Vanguard Ekimeneko 10 eskualde kiderekin batera. Proiektuak bi urteko iraupena izango du, eta helburua izango da eskualdeek industria berrikuntzaren alorrean dituzten lankidetzarako tresnak hobetzea.

Laburbilduz, Euskadik Vanguard Ekimenaren eskualde fundatzaileen nukleoan parte hartzen jarraituko du, irabazi asmorik gabeko erakunde gisa ofizialki eratzeari begira, bai eta manufaktura aurreratuaren arloko proiektu pilotuetan ere.

2016an, Europar Batasunaren Ingurumen Kontseiluak urratsak egingo ditu Europako Batzordeak 2015eko abenduan aurkeztu zuen Ekonomia Zirkularrari lotutako neurri sortan. Neurri horiek aurre egin nahi diete ekonomia eta ingurumen arazoei, baliabideen eraginkortasuna maximizatuz balio kate osoan eta berrikuntzan sakonduz, merkatu eta negozio eredu berriak sortzeko aukera emango duena. Euskadik arreta handia jarriko du lan

horietan, baita hondakinei buruzko legegintza proposamenari buruzko lanetan ere, hondakinak murrizteko helburu argiaz.

2016an, klima aldaketari dagokionez, abenduan Parisen egin zen Klimari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparruaren Aldeen Konferentziaren –COP21– akordioak markatuko du Europako agenda. COPen lortutako emaitzen jarraipena egingo dugu, baita klimari eta energiari buruzko 2030 arterainoko neurri sortaren inplementazioaren jarraipena ere, eta babesa emango diegu Euskadi klima aldaketaren aurkako borrokan erreferentziako eskualde izan dadin eginiko ekintza guztiei.

Ikerketa eta berrikuntzaren alorrean, HORIZON 2020 I+b programak gidari izaten jarraitzen du. Datozen urteetan, Europako Batzordeak ia 16.000 milioi € erabiliko ditu European goi mailako ikerketa zientifikoak bultzatzeko. Programa hau aukera ezin hobea da Euskadirentzat, nazioarteko lankidetzaren bultzatzen duelako ikerketa eta garapen teknologikoan, posizio lehiakor bat lortzeko aurrean ditugun gizarte erronka handien ebazpenean.

Euskadik etorkizuneko Balio Erantsiaren Fabrikazioaren arloko Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Komunitatearen buru izateko hautagaitza bultzatzen eta koordinatzen du. Horretarako deialdia urtarrilaren 14an izan zen. Funtsezko proiektu estrategikoa da Euskadi arlo horretako Europako ezagutza eta ekintzailetzaren aliantza baten buruan kokatzeko.

2016ko Europako Politika Energetikoari dagokionez, Energiaren Europar Batasuna lortzeak jarraituko du izaten lehentasuna. Arretaz jarraituko dugu merkatu energetikoaren berdiseinuari buruzko eztabaida, merkatu elektrikoarena bereziki, eta energia berriztagarriari eta eraginkortasun energetikoari buruzko ekimenak. Halaber, lanean jarraituko dugu Euskadi itsas energietan erreferente izan dadin, Europako agendan nahiz nazioartekoan.

2016a Donostiaren urtea da (“Europako Kultur Hiriburua”), eta Creative Europe finantza tresnaren aplikazioarena. Batzordeak hainbat plataforma eta egitasmo pilotu jarriko ditu martxan, kulturari, sorkuntzari eta “Smart Specialisation”-ari lotuta, euskal agendan lehentasuna duen ardatz bat izanik.

2016ko bigarren seihilekoan, Euskadi estatuko autonomia erkidegoen ordezkari izango da EBren Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirol Kontseiluaren hezkuntza eta kultura alorrean. “Skills” Europako agenda berria aurkeztuko da, eta unibertsitatea-enpresa aliantzari lotutako ekimenen errefortzua eta goi-mailako hezkuntzaren bikaintasuna. 2016an, berrikusi egingo da gazteriaren Europako agenda, eta horren berri emango dugu Euskadin.

Bestetik, 2016. urtea garrantzitsua izango da lankidetzaren ikuspegitik. Mugarri izango da desafio globalen garapenean eta Nazio Batuen agenda globalaren jarraipenean, tokiko eta eskualdeetako agintarien partaidetza prozesuak abian jarrita.

Azkenik, turismoaren alorrean, arreta berezia jarriko dugu itsas turismoan eta bikaintasuna xede duten norakoetan, eta lanean jarraituko dugu Euskadik europar proiektuetan partaidetza gero eta handiagoa izan dezan.

**1. ERANSKINA**

**EUSKADIK ESKUALDEETAKO LANTALDEAN DUEN PARTE HARTZE  
GARRANTZITSUENARI BURUZKO LABURPEN TAULAK**

<b>Ekitaldia</b>	<b>Ordezkaria</b>	<b>Jarduna</b>	<b>Data</b>
<b>110. osoko bilkura</b>	<b>Marian Elorza,</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE alderdi politikoaren bilera - - - Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2015.02.12 2015.02.13
<b>111. osoko bilkura</b>	<b>Marian Elorza</b>	-ALDE alderdi politikoaren bilera - - - Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2015.04.16 2015.04.17
<b>112. osoko bilkura</b>	<b>Marian Elorza</b>	-ALDE alderdi politikoaren bilera - - - Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2015.06.03 2015.06.04
<b>113. osoko bilkura</b>	<b>Marian Elorza</b>	-ALDE alderdi politikoaren bilera - - - Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2015.07.08 2015.07.08
<b>114. osoko bilkura</b>	<b>Marian Elorza</b>	-ALDE alderdi politikoaren bilera - - - Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2015.10.13 2015.10.14
<b>115. osoko bilkura</b>	<b>Marian Elorza</b>	-ALDE alderdi politikoaren bilera - - - Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2015.12.03 2015.12.04

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

<b>Beste ekitaldi batzuk</b>	<b>Ordezkaría</b>	<b>Jarduna</b>	<b>Data</b>
<b>Lurralde Lankidetzako Europako Taldeei buruzko Plataformaren urteko bilera</b>	<b>Mikel Antón,</b> Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendaria	Akitania-Euskadi Euroeskualdearen aurkezpena, praktika egokien adibide modura. Akitania-Euskadi 2014-2020 LLETren Plan Estrategikoaren erakusketa	2015.03.03
<b>Lankidetzaren Deszentralizatuari buruzko IV. Jardunaldiak</b>	<b>Paul Ortega,</b> Garapenerako Euskal Agentziako zuzendaria	1. mahai inguruko hizlari nagusia: “Post 2015 agenda: unibertsaltasuna eta garapenaren lurralde ikuspegia”. Ondorioak aurkeztea osoko batzarrean	2015.06.01 2015.06.02
<b>Open Days: Konferentzia:</b> “Itsasertzeko eskualdeak eta hazkunde adimenduna negozioentzat, enpleguarentzat, berrikuntzarentzat eta gaitasunentzat”	<b>Mikel Antón</b>	Hitzaldia: “Estrategia atlantikoa eta itsas estrategia, ardatza hazkunde jasangarri eta adimendunerako, berrikuntzarako, lehiakortasunerako eta eskualde lankidetzarako”	2015.10.13
<b>Open Days: Konferentzia:</b> “Hiri garapen integratuaren sustapena, EBn Hiri Agenda bat garatzeari begira”	<b>Juan Carlos Escudero,</b> Gasteizko Udaleko Ingurumen Azterlanen Zentroko zuzendaria	Gasteiz hiriaren aurkezpena, Hiri Berde praktika egokien eta ingurumena errespetatzen duten hiri garapen baten adibide gisa	2015.10.13
<b>COP21 aurre-konferentzia:</b> “Gizarte zibila, hiriak eta eskualdeak, COP21 konferentziara eta harago begira”	<b>Marian Elorza,</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	Hitzaldia: “2050 Klima Aldaketaren Estrategia: Euskadiren konpromisoa”. Euskadiko ingurumen politiken bide orria.	2015.11.19



**2. ERANSKINA**

**EUSKO JAURLARITZAK ESKUALDEETAKO LANTALDEAN  
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

<b>Irizpenaren izena</b>	<b>Eginiko zuzenketak</b>	<b>Aurkeztutako zuzenketak</b>	<b>Onartutako zuzenketak</b>
4083/14 Ekonomia zirkular baterantz: zero hondakineko programa bat Europan	8	8	7
4084/14 Eraikuntza sektorean baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko aukerak	5	4	3
4330/14 EBren esparru estrategikoa laneko osasun eta segurtasun gaietan (2014-20)	3	3	3
4331/14 Ekintza ekologikoko plana ETEentzat eta Enplegu Berdea ekimena	6	6	6
5701/14 Bizitza duina denontzat: ikuskeratik ekintza kolektibora	5	5	4
6248/14 Elkartze akordioei buruzko negoziazioen emaitzak eta programa operatiboak	7	0	0
0487/15 EBren 2020 Lurralde Agendaren aplikazioa hobetzea	6	6	6
0943/15 Inbertsio Plan bat Europarentzat	3	3	2
1535/15 Parisko Protokoloa, plan gidari bat 2020tik aurrera klima aldatetari aurre egiteko	3	3	3
1691/15 Ekonomia sozialak hazkunde ekonomikoaren indarberritzean eta langabeziaren aurkako borrokan duen zeregina	3	3	3
1772/15 Lurralde garapenaren aldeko finantza tresnak	1	1	1

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

2607/15 Europako Migrazio Agenda	4	2	2
2646/15 Europako merkatu bakar digitalerako estrategia	3	3	3
2671/15 Auzotasun politika europar berria	2	2	2
3307/15 EBren funtzionamendua hobetzea: Lisboako tratatua eta hortik harago	2	0	0
3865/15 Sozietate zerga sistema bidezko eta eraginkor bat Europar Batasunean	7	6	6

<b>GUZTIRA</b>	<b>69</b>	<b>56</b>	<b>52</b>
4285/15 2050erako lurralde ikuspegi bat: Zer etorkizun dugu?	1	1	1

### 3. ERANSKINA

#### BESTE KIDE BATZUEK EGINDAKO ETA EUSKADIREKIN BATERA ESKUALDEETAKO LANTALDEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Zuzenketaren sustatzailea	Aztertutako zuzenketen kop.	Babestutako zuzenketen kop.
<b>Andaluzia</b> <u>Gaiak:</u> Indikazio geografikoak 3; Ekonomia zirkularra 2; Auzotasun politika europar berria 2; Lurralde garapenerako finantza tresnak 3; Mugaz gaindiko lankidetzaren errefortzua 2; Europako migrazio agenda 5.	17	13
<b>Aragoi</b> <u>Gaiak:</u> Ekonomia zirkularra 1; Ekintza ekologikoko plana 3; Kapitalen merkatuen batasuna 3.	7	4
<b>Asturias</b> <u>Gaiak:</u> Baliabideen erabilera efizientea eraikuntzan 6; Herritar ekimen europarra 2; Energia ozeanikoa 3; Energia alorreko neurri sorta 11.	22	10
<b>Balearrak</b> <u>Gaiak:</u> (2050) urterako lurralde ikuspegia 1.	1	1
<b>Kanariak</b> <u>Gaiak:</u> TTIP <sup>2</sup> 1; Ekonomia zirkularra 1; Europako Batzordearen lan programa 1; EBren lurralde agenda 2; IEEF <sup>3</sup> 1; Baliabideen erabilera efizientea eraikuntzan 1; Orientazioak enplegu politiketarako 4; Ikuspegi jasangarria migrazioan 3; Auzotasun politika europar berria 2.	16	13
<b>Kantabria</b> <u>Gaiak:</u> Europako kultura ondarea 6.	6	4
<b>Gaztela-Mantxa</b> <u>Gaiak:</u> Ekintza ekologikoko plana 3; Europako migrazio agenda 3; Ekonomia soziala eta hazkundea 2.	8	5

<sup>2</sup> TTIP: Merkataritza eta Inbertsiorako Akordio Tratatlantikoa

<sup>3</sup> IEEF: Inbertsio Estrategikoetako Europako Funtsa

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

<p><b>Gaztela eta Leon</b>  <u>Gaiak:</u> Europako Batzordearen lan programa 4; Ekonomia zirkularra 1; EBren lurralde agenda 5; Baliabideen erabilera efizientea eraikuntzan 3; Bidezko merkataritza 2; Klimari buruzko munduko akordioa 2; Energia alorreko neurri sorta 3; Europako migrazio agenda 2; (2050) urterako lurralde ikuspegia 5; Alkateen hitzarmena 1.</p>	28	15
<p><b>Katalunia</b>  <u>Gaiak:</u> IEEF 7.</p>	7	2
<p><b>Extremadura</b>  <u>Gaiak:</u> Ekintza ekologikoko plana 8; Ekonomia zirkularra 2; Laneko osasun eta segurtasun esparrua 5; TTIP 4; IEEF 2; Europako kultura ondarea 4; Baliabideen erabilera efizientea eraikuntzan 1.</p>	26	12
<p><b>Galizia</b>  <u>Gaiak:</u> Esnearen sektorearen etorkizuna 8; Eskualdeetako Lantaldearen lehentasunak (2015-20) 2; Elkartze akordioak eta programa operatiboak 3; Energia ozeanikoa 1; Ekonomia soziala eta hazkundea 1.</p>	15	2
<p><b>Errioxa</b>  <u>Gaiak:</u> Ekonomia zirkularra 1; Laneko osasun eta segurtasun esparrua 1.</p>	2	1
<p><b>Madril</b>  <u>Gaiak:</u> Ekonomia soziala eta hazkundea 2.</p>	2	1
<p><b>Murtzia</b>  <u>Gaiak:</u> Energiaren alorreko neurri sorta 1; Mugaz gaindiko lankidetzaren errefortzua 1; Herritar ekimen europarra 1; Europako migrazio agenda 1; Ekonomia soziala eta hazkundea 3.</p>	7	5
<p><b>Nafarroa</b>  <u>Gaiak:</u> Lankidetzaren ekonomia 9.</p>	9	5
<p><b>Valentzia</b>  <u>Gaiak:</u> Laneko osasun eta segurtasun esparrua 2; Europako Batzordeko lan programa 3; IEEF 1; EBren lurralde agenda 3; Ekonomia soziala eta hazkundea 4.</p>	13	10
<p><b>ALDE talde politikoa</b>  <u>Gaiak:</u> IEEF 31; EBren lurralde agenda 4; Erregulazioa hobetzea 6; Ekonomia soziala eta hazkundea 2; Europako migrazio agenda 3;</p>	82	22

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

---

Enpleguaren ordainsaria EBn 6; Lankidetzak ekonomia 12; TISA <sup>4</sup> 18.		
<b>GUZTIRA</b>	<b>268</b>	<b>125</b>

---

<sup>4</sup> TISA: Zerbitzuen Merkataritzari buruzko akordioa

### **4. ERANSKINA**

#### **EUSKADIK PARTE HARTU DUEN EUROPAR BATASUNEN EKONOMIA ETA FINANTZA GAJETARAKO BATZORDERA (ECOFIN) ATXIKITAKO LANTALDEEN BILERAK**

1. Zerga Gaietako D4 Taldearen bilerak; zuzeneko zerga sisteman eta zeharkako zerga sisteman banatzen da:

- Zuzeneko zerga sistema: zerga oinarriaren erosioa eta irabazien lekualdatzea; estatu kide desberdinetako sozietate elkartuen artean eginiko kanon eta interesen ordainketak; sozietateen gaineko zergaren zerga oinarri kontsolidatu komuna; zerga sistemaren arloan informazioa automatikoki eta derrigorrean trukitzea; eta aurrezkiaren errendimenduen zergak interesak ordainduz.

Bilera egunak: urtarrilak 21, martxoak 4, martxoak 12, apirilak 8, apirilak 30, maiatzak 6, maiatzak 21, uztailak 9, uztailak 16, uztailak 22, irailak 9, irailak 10, irailak 24, irailak 30, urriak 28, urriak 29 eta azaroak 20. Guztira, 17 bilera.

- Zuzeneko fiskalitatea: BEZ aitortzen normalizatua; BEZa, bonuen tratamenduari dagokionez; eta finantza transakzioan zerga.

Bilerak: otsailak 27, martxoak 19, apirilak 9, maiatzak 13, maiatzak 27, maiatzak 29, ekainak 8, ekainak 9 eta irailak 18. Guztira, 9 bilera.

2. Jokabide Kodearen D5 Taldea, enpresen zerga sistemari eta dagokion azpitaldeari buruzkoa:

- Enpresen zerga sistemari buruzko Jokabide Kodea:  
Bilerak apirilaren 7an, uztailaren 23an, irailaren 17an, urriaren 14an eta azaroaren 18an. Guztira, 5 bilera.
- Jokabide Kodearen azpitaldea.  
Bilera: apirilak 8. Guztira, 1 bilera.

### **5. ERANSKINA**

#### **POLITIKA PUBLIKOETAKO HAINBAT ARLOTAKO EKIMEN ETA BILEREI BURUZKO JARDUERA BATZUK**

- Urtarrilaren 15ean, Lurralde Lankidetzako Europar Taldeen (LLET) Plataformaren bileran parte hartu zen. Bileraren helburua izan zen plataformak 2014an eginiko ekintzen berri ematea, sarea dinamizatzea eta eskualdeen iradokizunak jasotzea 2015. urteari begira.
- Urtarrilaren 19an, EARLALLEk gazteen enpleguari buruz antolatutako konferentzian parte hartu zen.
- Otsailaren 4an, REGIO Zuzendaritza Nagusian, bilera egin zen IPTSko funtzionarioekin (S3 plataformaren arduradunak), Vanguard Ekimenean duten zeregina aztertzeko.
- Otsailaren 10ean, bilera egin zen Europako Batzordeko Enplegu eta Gizarte Gaietarako Zuzendaritza Nagusiaren C.2 Unitatearekin, enpresa txikiak sortzeko mikrofinantzaketa tresnei buruz hitz egiteko.
- Otsailaren 18an, bilera egin zen EURES sareko ordezkari batekin, sarearen zereginen berri izateko.
- Martxoaren 5ean, Europako Parlamentuan, emakumeak eta neskak hezkuntzaren bitartez ahalduntzeari buruzko mintegian parte hartu zen.
- Martxoaren 18an, ERIAFF sareak antolatutako konferentzian parte hartu zen, aztergai izanik eskualde lankidetzaren uraren gestioan baratzezaintzan.
- Martxoaren 20an, ERIAFF sareak antolatutako konferentzian parte hartu zen, aztergai izanik eskualde estrategiak bioekonomiaren alorrean.
- Martxoaren 26an, Pertsona Ahulenentzako Europako Laguntzaren Funtzari buruzko bilera egin zen. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Zuzendaritza Nagusiaren E4 Unitateko ordezkariak parte hartu zuten.
- Apirilaren 15ean, Europako Inbertsioen Planari buruzko konferentzian parte hartu zen, Eskualdeetako Lantaldean.
- Apirilaren 24an, lan gosari bat egin zen Katainen presidenteordearen kabineteko kide den Miguel Gil Tertrekin.
- Apirilaren 27 eta 28an, “Grow your region” mintegian parte hartu zen, Europako Batzordeko GROW eta REGIO Zuzendaritza Nagusiek antolatua.
- Apirilaren 29an, fabrikazio aurreratuari buruzko mintegian parte hartu zen (“Developing new industrial value chains through open innovation collaboration spaces”).
- Maiatzaren 7an, Europako Lurralde Lankidetzari buruzko konferentzian parte hartu zen (Interreg), Eskualdeetako Lantaldean.
- Maiatzaren 7 eta 8an, Genetikoki Eraldatutako Organismorik gabeko Eskualdeen Sareak urtero egiten duten konferentzian parte hartu zen.
- Maiatzaren 12an, plataforma teknologikoen arteko lankidetzaren eta ezagutza transferentziari buruzko bilkuran parte hartu zen (“Supporting collaboration between KETs Technology Platforms and promoting the Pan-European access of SMEs to KETs Technology Platforms”).

- Maiatzaren 22an eta ekainaren 3 eta 10ean, bilerak egin ziren Gizarte Aurrerapenaren Europako Eskualde Indizea proiektuko arduradunekin.
- Ekainaren 2an, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak antolatutako konferentzian parte hartu zen. Gaia: ikastunen mugikortasuna.
- Ekainaren 3an, Europako Garapenerako Jardunaldien barnean (*European Development Days*), bi konferentzian parte hartu zen. Aztergai izan zituzten, hurrenez hurren: genero desberdintasunaren aurkako borroka 2030. urteari begira, eta EBren eta Latinoamerikaren arteko lankidetzaren ereduak gizarte politiken ikuspegitik.
- Ekainaren 4an, Europako Parlamentuan, aitortu gabeko lanaren desafioei buruzko konferentzian parte hartu zen.
- Ekainaren 4an, bilera egin zen CPMRko Marine Disecekin, egitura eta inbertsio funtsen kontura Euskadin “hazkunde urdinean” egin beharreko inbertsioei buruz egiten ari diren azterlana ezagutzeko.
- Ekainaren 17an, “ondasun komunaren ekonomia” kontzeptuari buruzko jardunaldian parte hartu zen, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak antolatua.
- Ekainaren 23an, “The Reindustrialisation of Europe: Innovation, jobs and growth” izeneko konferentzian parte hartu zen. Bienkowska komisarioak hitz egin zuen.
- Ekainaren 25ean, Galeseko Gobernuaren Europako bulegoak antolatutako jardunaldian izan ginen. Gaia: EBko gazteen artean enplegua sustatuko duten politikak eta neurriak.
- Ekainaren 30ean, Europako Desgaitasun Txartelari buruzko konferentzian parte hartu zen, Europako Parlamentuan.
- Ekainaren 30ean, bilera egin zen Galiziako Xuntako Ekonomia eta Industria kontseilariarekin, Vanguard Ekimenaren berri emateko.
- Uztailaren 1ean, Bide Atlantikoaren aurkezpenean parte hartu zen, helburu duena trenbidearen korridore atlantikoa sustatzea.
- Uztailaren 15ean, bilera egin zen Francisco Caballero GROW Zuzendaritza Nagusiko Unitate buruarekin, haren ahotik jakiteko zer asmo dituen Batzordeak Vanguard Ekimenak zuzentzen duen Fabrikazio Aurreratuko Espezializazio Adimenduneko Plataformari buruz.
- TTIPri buruzko negoziazioen jarraipenerako, hainbat mintegi eta konferentzian parte hartu da; zehazki, maiatzaren 29an, ekainaren 15ean, azaroaren 11n eta abenduaren 4an, Ekonomia eta Gizarte Batzordean. Gainera, ekainaren 23an, bilera egin zen Inmaculada Rodríguez Piñero eurodiputatuarekin.
- Irailaren 10ean, bilera egin zen Cañete komisarioaren kabinetean, argibideak emateko Euskadik eta Eskoziak Vanguard Ekimenaren baitan zuzentzen duten proiektu pilotuari buruz. Gainera, komisarioa gonbidatu zen inaugurazio hitzaldia egitera 2015. urte amaieran Eskualdeetako Lantaldean egitekoa zen industria erronkei buruzko mintegian. Parisko atentatuen ondorioz Bruselan alerta maila igo zenez, atzeratu egin zen mintegia 2016ko urtarrilera.
- Irailaren 14an, Alemaniako Ipar Renania-Westfalia eskualdearen bulegoan, migrazioaren erronka ekonomikoari buruzko adituen eztabaida batean parte hartu zen.
- Irailaren 17an, bilera egin zen Michel Catinat GROW Zuzendaritza Nagusiko Unitate buruarekin. Klusterren politikaren arduraduna da.
- Irailaren 17an, bilera egin zen Bart Kamp Lehiakortasunerako Euskal Institutuko (Orkestra) kidearekin.
- Irailaren 15ean, genetikoki eraldatutako organismoen arriskuaren ebaluazioari buruzko konferentzian parte hartu zen. Antolatzailea: Genetikoki Eraldatutako Organismorik gabeko Eskualdeen Sarea.



- Irailaren 30ean, Europako Batzordeko Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapen Zuzendaritza Nagusiak antolatutako konferentzian parte hartu zen. Migrazioen eta haiei loturiko politiken etorkizunaz hitz egin zen.
- Urriaren 9an, bilera egin zen Marie Donnelly ENER Zuzendaritza Nagusiko buruarekin, eta gonbidatu egin zen parte hartzera 2015eko azaroan Vanguard Ekimenaren baitan Eskualdeetako Lantaldean egitekoa zen industria erronkei buruzko mintegian.
- Urriaren 9an, bilera egin zen Remedios Bordiú Asturiasko Printzerriak Bruselan duen bulegoko kidearekin, Vanguard Ekimenean duten zereginari buruz hitz egiteko.
- Urriaren 10ean, Europako Batzordeko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Zuzendaritza Nagusiak urtero antolatzen duen fiskalitate mintegian parte hartu zen. Erreforma fiskalen ekonomia politikoaz hitz egin zen.
- Urriaren 13an, bilera egin zen Keith Sequeirarekin, Moedas komisarioaren kabineteko kidea, eta gonbidatu egin zen parte hartzera 2015eko azaroan Vanguard Ekimenaren baitan Eskualdeetako Lantaldean egitekoa zen industria erronkei buruzko mintegian.
- Urriaren 14an, Tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko Europako Gutunerako adierazleei buruzko proiektu pilotuaren amaierako konferentzian parte hartu zen.
- Urriaren 15ean, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak antolatutako konferentzian parte hartu zen. Gaiak: EBren erronkak eta ekimenak iheslariak lan merkatuan sartzeari dagokionez.
- Urriaren 20an, bilera egin zen Manuel Palazuelos IPTSko Arlo buruarekin (Energia arloko Espezializazio Adimenduneko Plataformako arduraduna), eta gonbidatu egin zen parte hartzera 2015eko azaroan Vanguard Ekimenaren baitan Eskualdeetako Lantaldean egitekoa zen industria erronkei buruzko mintegian.
- Urriaren 22an, Etorkizuneko Fabrikari buruzko konferentzian parte hartu zen, Ile de France eskualdeak antolatua. EBrako Euskadiko ordezkariak parte hartu zuen, Vanguard Ekimenaren izenean.
- Urriaren 26an, bilera egin zen Gwenaél Boliff-Botrel RTD Zuzendaritza Nagusiko Estrategia Unitateko buruarekin, eta gonbidatu egin zen ponentzia bat lantzera 2015eko azaroan Vanguard Ekimenaren baitan Eskualdeetako Lantaldean egitekoa zen industria erronkei buruzko mintegirako.
- Azaroaren 5ean, estatu laguntzei buruzko EBren fiskalitate eta araudiei buruzko konferentzian parte hartu zen. Gai praktikoak eta egungo politikak aztertu ziren.
- Azaroaren 10ean, bilera egin zen Eurofound-en (Bizi eta Lan baldintzak hobetzeko Europako Agentzia) “The future of Manufacturing in Europe” proiektu pilotuko ordezkariarekin, Euskadik eta Vanguard Ekimenak proiektuan duten zereginaz eztabaidatzeko.
- Azaroaren 20an, bilera egin zen Jan Dzieciolowskiarekin, Cretu komisarioaren kabineteko kidea, eta gonbidatu egin zen amaierako hitzaldia egitera 2015eko azaroan Vanguard Ekimenaren baitan Eskualdeetako Lantaldean egitekoa zen industria erronkei buruzko mintegian.
- Abenduaren 7an, Demografia Aldaketari buruzko Itunaren aurkezpenean parte hartu zen, Eskualdeetako Lantaldean.
- Abenduaren 7an, bilera egin zen Miguel Gil Trererekin, Katainen presidenteordearen kabineteko kidea, azken horren parte hartzea prestatzeko Vanguard Ekimenaren Batzar Politikoan.
- Abenduaren 7 eta 8an, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna dela-eta urtero egiten diren jardunaldietan parte hartu zen (abenduaren 3a).

## *Eusko Legebiltzarraren jarduera txostena*

---

- Abenduaren 15ean, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiaren UIA ekimenaren (*Urban Innovative Actions* - Hirigintza Ekintza Berritzaileak) lehenengo deialdiaren aurkezpenean parte hartu zen.
- Abenduaren 18an, bilera egin zen Migrazio eta Barne Arazoetako Zuzendaritza Nagusiaren C3 Unitatearekin, migrazioari eta iheslariari buruzko Europako politikak aztertzeko.

### **6. ERANSKINA**

#### **2015EAN EUSKADIK LAN EGIN DUEN ETA LANKIDETZAN JARDUN DUEN SARE NAGUSIAK**

- ERLAI: Asilo eta Immigrazioari buruzko Europako Tokiko eta Eskualdeko Agintariak.
- ERIAFF sarea (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry), nekazaritzan, elikaduran eta baso gaietan Europako eskualde berritzaileak biltzen dituena.
- EUROMONTANA sarea, mendi eremuetarako Europako elkarte.
- CPMR (Europako Periferiako Itsas Eskualdeetako Konferentzia) - Kanpo Lankidetzako lantaldea (Euskadi da burua).
- CPMRren (Europako Periferiako Itsas Eskualdeetako Konferentzia) Arku Atlantikoko Batzordearen Garraio, Berrikuntza, Estrategia Atlantiko, Arrantza, Turismo eta Itsas Energia Berriztagarri arloko Lantaldeak.
- Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkarte (AREPO)
- GEORik Gabeko Eskualdeen Sarea
- "Vanguard Initiative"
- RICC/ Regional Initiative for Culture and Creativity (Euskadik buruzagitza partekatzen du)
- Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD): Euskadi da burua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea
- EBko Kultur Institutu Nazionalen Sarea (EUNIC): Euskadi (Etxepare institutua) sareko kidea da
- NECSTOUR/Turismo jasangarrirako eskualdeen Europako sarea.
- EARLALL/ Lanbide heziketa eta bizitza osoan zeharreko prestakuntzarako Europako sarea. Euskadi da burua, Lanbide Heziketako sailburuordea
- CINEREGIO: Eskualde eta Estatuen Ikus-entzunezkoen Funtza
- PLATFORMA: Tokiko eta eskualdeko agintarien garapenerako lankidetzaren Europako plataforma.
- CONCORD: Garapenerako lankidetzako GKE-en Europako plataforma.
- CGLU
- Unibertsitateen Europako Elkarte
- Creative Europe MEDIA Desk Euskadi
- Europako Gazteriaren Foroa